

EUSKARAREN ERABILERAN
ERAGITEN DUTEN PROZESU
PSIKOSOZIALAK: IDENTITATE
ETNOLINGUISTIKOAREN
GARRANTZIA. UDAL BATEN
KASUA

Egilea: Gema Loinaz Sorozabal
Tutorea: Mari Jose Azurmendi Ayerbe

AURKIBIDEA

SARRERA.....5. orr.

I. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN PROZESU PSIKOSOZIALAK: UNIBERTSITATEKO IKASLEAK

1.-EUSKARAREN ERABILERA.....5. orr.

1.1.-Euskararen erabileraren garrantzia:

1.1.1.-Euskararen erabilera, euskararen normalkuntzaren helburu.....5. orr.

1.1.2.-Euskararen erabilera indartzeko asmoak eta plangintzak.....7. orr.

2.-SARRERA TEORIKOA.....8. orr.

2.1.-Gizarte psikologiaren ikuspegitik hizkuntzen erabilera azaltzeko gehien
erabiltzen diren teoriak:

2.1.1.-Bizitasun etnolinguistikoa.....8. orr.

2.1.2.-Sare soziala.....10. orr.

2.1.3.-Jarrerak.....11. orr.

2.1.4.-Identitate etnolinguistikoa.....12. orr.

3.-IKERKETA ENPIRIKOA.....13. orr.

3.1.-Euskararen erabilera baldintzatzen duten hiru aldagaiak.....13. orr.

3.2.-Ikerketa enpirikoa:.....14. orr.

3.2.1.-Helburuak.....14 orr.

3.2.2.-Metodologia.....14 orr.

3.2.3.-Hipotesiak.....15. orr.

4.-EMAITZAK.....	16. orr.
4.1.-Identitate etnolinguistikoaren egituraketa.....	16 orr.
4.2.-Subjektuen sailkapena identitatearen arabera eta taldeen arteko konparaketa	
4.3.-Identitatearen arabera egindako taldeen profil psikosoziala.....	17 orr.
4.4.-Euskararen erabilera azaltzeko proposatutako eredu psikosozialaren baieztapena.....	17. orr.
5.-ONDORIOAK.....	20. orr.
6.-ERANSKINA: UNIBERTSITARIEN ARTEAN BANATUTAKO GALDESORTA	

II.-EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN PROZESU PSIKOSOZIALAK: UDALETXE BATEKO LANGILEAK

1.-SARRERA.....	36. orr.
2.-IKERKETA ENPIRIKOA:.....	36. orr.
2.1.-Helburua: I. Garciak unibertsitarien artean erabilitako eredua udal bateko langileen kasuan baliagarria ote den aztertzea.....	36. orr.
2.2.-Metodologia.....	37. orr.
3.-EMAITZAK.....	39. orr.
3.1.-Aldagai soziodemografikoei buruzkoak.....	39. orr.
3.2.-Aldagai soziolinguistikoei buruzkoak.....	40. orr.
3.3.-Aldagai psikosoziaiei buruzkoak.....	43. orr.
3.4.- Udaleko langileen argazkia.....	59. orr.
4.-ONDORIOAK.....	62. orr.
5.-ERANSKINAK.....	64. orr.
5.1.-Udaletxeko langileen artean banatutako galdesorta.....	65. orr.
5.2.-Emaitzak: maiztasunen taulak.....	76. orr.
6.-BIBLIOGRAFIA.....	102. orr.

SARRERA

Lan honek *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia* du izenburua, izenburu bera duen Iñaki Garciaren tesiak bezalaxe, lan honek I.Garciaren lana izan baitu abiapuntu eta ardatz.

Baina I.Garciaren tesiak unibertsitariak aztergai izan zituen bitartean, eskuartean duzun lan honek udal bateko langileak izan ditu ikergai. Gauzak horrela, lanaren lehenengo zatian I.Garciaren tesiaren punturik azpimarragarrien laburpena doa. Bigarrenean, berriz, I.Garciaren lanean oinarritutako lanaren gorabeherak.

1.-EUSKARAREN ERABILERA

1.1.-Euskararen erabileraren garrantzia

1.1.1.-Euskararen erabilera, euskararen normalkuntzaren helburu

Egungo egoeran oso beharrezkoa da euskararen ezagutzaz eta jabetzaz edo ikaskuntzaz jardutea, eta hauek aztertzea, horiek gabe ezinezkoa delako euskararen erabilera. Baina premiazkoa dena, edo lortu behar den azken helburua, euskararen erabilera da.

Ezagutzari buruzko ikerketak ugariagoak direnez, lan honek erabilerari nahi dio lehentasuna eman.

Orain artean egindako ikerketei dagokienez, administraziotik bultzatutakoak eta administraziotik kanpora egin direnak bereiz ditzakegu. Administraziotik bultzatu direnen artean *Euskararen Jarraipena* (Eusko Jaurlaritza, 1995) eta *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta, 1996. Euskararen Jarraipena II* (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea, 1999) aurki ditzakegu. Bi lan horietan ezagutza zein erabilera aztertu dira.

Ekimen sozialaren baitan egin direnetan gehiago azpimarratu izan da erabileraren garrantzia, batez ere EKB, EHE, Bagara eta antzeko erakundeek bultzatu eta Siadecoren gidaritzapean egin diren zenbait balaratako azterketetan.

Dena den, bai ekimen ofizialeko bai ekimen sozialeko ikerketen artean ikuspegi soziologikoa dutenak izan dira nagusi, gehienak soziologoek gidaritzapean egin direlako. Horregatik, ikerketa gehienetan bi atal bereizi ohi dira:

- Aldagai soziodemografikoen atala: adina, sexua, jaioterria, bizi-herria, lehen hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntza...

- Eremu sozial ezberdinen bilakaera deskribatzeko aztertzen direnak:

- a)testuinguru soziala: etxea, hezkuntza, zerbitzuak...

- b)komunikazio-guneak: gertuko familia, urrutiko familia, lagunak, lankideak...

Ikerketa horiek euskararen uneko argazkia egiten dute eta ikerketen arteko alderaketa eginez, euskararen bilakaeraren berri izatea lortzen dute.

Baina badira bestelako ikerketak ere, hala nola, euskararen bilakaera noranzkoa den esaten eta neurtzen dutenak, baina bilakaera horretan eragiteko asmoarekin. Ikerketa horiek ikuspegi zabalagoa dute, ez bakarrik soziologikoa, baita psikologikoa eta psikosoziala ere. Horrelako ikerketak unibertsitatearen eremuan egin dira batipat.

Esku artean duzun lan honek ikuspegi esplikatzailea eta psikosoziala duen Iñaki Garciaren *Euskararen erabilera eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia* izeneko tesian du oinarri eta lan horren bidetik udal bateko euskararen erabilera aztertu eta ondorio batzuetara iristea du helburu.

1.1.2.-Euskararen erabilera indartzeko asmoak eta plangintzak

Aurreko atalean bezalaxe, oraingo honetan ere ekimen ofizialen eta ekimen sozialen arteko bereizketa egin behar dugu erabilera indartzeko aurrera eraman edo eramaten ari diren asmo eta plangintzei dagokienez.

Ekimen ofizialekoen artean hauek ditugu: *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia/Plan General de Promoción del Uso del Euskera* (Eusko Jaurlaritza, 1999), unibertsitaterako UPV/EHUko *Euskararen Erabilera Normalizaziorako II. Plangintza/II Plan de Normalización del Uso del Euskera en la UPV/EHU* (UPV/EHU, 1999), unibertsitate aurreko hezkuntzarako NOLEGA 1999-2000 *Aurkezpen Txostena* (Eusko Jaurlaritza, 1999) eta udaletarako *Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak. AEBE Programa. AEBEMET Metodologia* (Eusko Jaurlaritza, 1999).

Bestetik, ekimen sozialetik burutu direnak ditugu. Horien artean azpimarratu beharra dago Euskal Herri osorako egindako *Euskararen Normalkuntzarako Plan Estrategikoa* (Kontseilua, 1999). Eremuka burutakoen artean, berriz, irakaskuntzarako (BAT 10, 1993), lan-mundurako (BAT 11, 1993), administrazioarako (BAT 17, 1995) eta unibertsitaterako (BAT 25, 1997) proposamenak egin dira.

Ikuspegiarik zabalena dutenak beraz, Eusko Jaurlaritzaren *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* eta Kontseiluaren *Euskararen Normalkuntzarako Plan Estrategikoa* ditugu, bata ekimen ofizialekoa, ekimen sozialekoa, bestea. Dena den, bi planok uztartzeko asmoa 1999ko martxoan Eusko Jaurlaritzaren eta Kontseiluaren artean sinatutako hitzarmenean gauzatu zen. Hitzarmen horren helburu nagusiak lau ziren:

- Bi planen arteko osagarritasuna eta bi aldeen arteko lankidetzaren bermatzea.
- Kontseiluak EBPNren garapena bultzatzeko konpromisoa hartzea.
- Kontseiluak sustatze-lan hori Plan Estrategikoan parte hartzen duten gizarte-eragileei EBPNk bakoitzaren esparruaz dioena proposatuz burutzea.
- EBPN gizarte-eragileen ekarpenekin aberastu eta eguneratuz joatea.

2.-SARRERA TEORIKOA

2.1.-Gizarte-psikologiaren ikuspegitik hizkuntzen erabilera azaltzeko gehien erabiltzen diren teoriak

Teoriak aukeratzeko bi irizpide hartu dira kontuan:

- Irizpide kuantitatiboa: tradizio psikosozialean gehien erabili diren teoriak.
- Irizpide kualitatiboa: ukipen-egoeran dauden hizkuntzen erabilera azaltzeko zeintzuk izan diren teoriarik garrantzitsuenak, bai tradizio psikosozialean, bai euskal kontestuan.

Bi irizpide hauek kontuan hartzeak ondorengo esparruak aukeratzera eramanez tesia egilea: bizitasun etnolinguistikoa, sare soziala, jarrerak eta identitate etnolinguistikoa.

2.1.1.-Bizitasun etnolinguistikoa

2.1.1.1.-Bizitasun etnolinguistikoko objektiboa

Prozesu psikosozialetan testuinguruak daukan garrantzia kontuan hartzeko asmoz sortu zen bizitasun etnolinguistikokoaren kontzeptua. Bizitasun etnolinguistikoa hizkuntza eta kultura aldetik ezaugarri bereziak dituen giza-talde baten bizi-indarraz dihardu.

Gizarte psikologiaren eremuan sortu eta garatu da bizitasun etnolinguistikokoaren kontzeptua. Bere lehen agerpena Giles, Bourhis eta Taylor ikerlarien *Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations* (1977) artikulua izan zen. Helburua zen zehaztea zernolako lotura duten hiru elementu hauek: hizkuntza, etnizitatea eta taldeen arteko harremanak.

Bizitasun etnolinguistikokoaren barruan hiru dimentsio estruktural bereizten dira: demografia, estatusa eta babes instituzionala. Demografiaren atalean kontuan hartzen dira hiztunen kopurua, haien banaketa lurraldean zehar eta taldearen joera demografikoak. Estatusak zerikusia du hizkuntzaren prestigioarekin eta bertan eragiten duten faktoreak ekonomikoak, sozialak, sozio-historikoak eta linguistikoak izan daitezke. Babes instituzionalak, berriz, zerikusia du hizkuntzak erakundeetan duen pisuarekin: gobernuan, elizan, ekonomian...

2.1.1.2.-Bizitasun etnolinguistikoko subjektiboa

a) Bizitasun etnolinguistikoko subjektiboaren hautematea

Bizitasun etnolinguistikokoaren kontzeptuaren sortzaileek bide ezberdinak proposatu zituzten datu objektiboak biltzeko. Hala ere, jakina da norbanakoen hautemateak eta irudikapen kognitiboak taldearteko portaera baldintzatzen dutela. Giles eta bere laguntzaileak argudio honetaz baliatu ziren gizabanakoen bizitasun etnolinguistikokoaren hautemateak taldeen arteko portaera etnikoan duen eragina azpimarratzeko. Horrela sortu zen bizitasun etnolinguistikoko subjektiboaren kontzeptua.

Talde bateko kideen egoera sozio-estrukturalaz jasotzen den hautemate subjektiboa eta adierazle objektiboek adierazten dutena berdina edo antzekoa den ikusteko, Bourhis, Giles eta Rosenthal-ek (1981) *bizitasun etnolinguistikoko subjektiboaren hautematea* BELS kontzeptua proposatu zuten. Demografia, babes instituzionala eta estatusari buruzko balorapenak neurtzeko *bizitasun subjektiboaren galdesorta* BSG egin zuten. Portaera soziolinguistikoko batzuetan eragiteko, bizitasun subjektiboaren hautematea talde baten bizitasun objektiboa bezain edota garrantzitsuagoa izan daiteke. Dena den, portaera etnolinguistikoak aurrikusteko metodorik egokiena bizitasun objektiboa eta subjektiboa kontuan hartzen dituen dirudi.

b) Bizitasun etnolinguistikoko subjektiboa uste-sistema bezala

Bizitasun etnolinguistikoaren kontzeptuak kritika ezberdinak jaso izan ditu. Kritika horietan oinarriturik, zenbait autorek bizitasun etnolinguistikoaren teoria birplanteatu zuten. Horrela, Allard et Landry-k (1986) BELSen teoria eraberritu zuten BELSa uste-sistema bezala azalduz. Autore hauen iritziz talde baten hautemate subjektiboak eta errealitate objektiboak ez dute derrigorrez berdinak izan behar, aldi berean, testuinguru objektiboak ez du portaeran zuzenki eragiten, duen eragina zeharkakoa da hautemate- eta kognizio-prozesuen bitartez gauzatzen delarik.

Allard eta Landryk (1986) BSG moldatu zuten beraien galdesorta egiteko. Autore hauen ustez, Bourhis eta bere lankideen galdetegia motz gelditzen zen, bakarrik egoera objektiboari buruzko iritziak jasotzen zituztelako. Allard eta Landryren iritziz bizitasun etnolinguistikoaren aurreko ereduak (Bourhis, Giles eta Rosenthal, 1981) uste orokorrak soilik hartzen zituen kontuan eta, horregatik, ez zen hizkuntza-portaeren aurrikusle ona. Asmo horretarako oinarria orientazio kognitiboaren teorian aurkitu zuten. Teoria honen arabera, usteak portaera-asmoetan biltzen dira, eta hauetatik, ekintza-programak ondorioztatzen dira kate batean. Sinesmenak edo usteak lau motatakoak dira: uste orokorrak, uste arau-emaileak, uste pertsonalak eta helburu-usteak.

Lau uste-sistema hauek, enpirikoki, bi faktore nagusitan biltzen dira: lehenengo faktorean helburu-usteak eta uste pertsonalak aurkitzen dira eta hauei uste egozentrikoak deitzen diete. Bigarrenean, berriz, uste orokorrak eta uste arau-emaileak batzen dira uste exozentrikoak osatuz. Uste exozentrikoak bizitasun etnolinguistikoko objektiboarekin daude harremanetan eta uste egozentrikoak identitate etnolinguistikoarekin (Allard eta Landry, 1994).

Tesiaren egilearen iritziz, bizitasun etnolinguistikoaren teoria oso interesgarria da nahiz eta kritika asko jaso dituen, gizabanakoen egoeraren hautemate edo usteei buruzko informazioa ematen duelako.

2.1.2.-Sare soziala

Sare soziala modu ezberdinetan definitu ohi da, teoria edo eredu ezberdinen arabera. Orokorrean, gizabanako bakoitzaren edozein mailatako harreman guztiek definitu eta mugatuko dute gizabanako horren sare soziala. Horregatik, sare soziala batzuetan prozesu psikosozial gisa hartu ohi da eta beste batzuetan, portaera psikosozial modura.

Psikolinguistikaren ikuspegitik, sare sozialetan ematen dira hizkuntzen jabekuntzarako eta ikaskuntzarako oso garrantzitsuak diren bi prozesu:

- Asimilazioa: eskema kognitiboetan oraindik ez dagoen informazio edo estimulu berrien barneratzea.
- Egokitzea: eskema kognitiboa inguruneko aldaketetara moldatzeko gizabanakoak egiten duen lana.

Horren ondorioz, sare sozialak erabiltzen dira:

- Hizkuntzaren jabekuntza eta irakaskuntza bereizterakoan.
- Ezagutza eta erabileraren arteko harremanak azaltzeko.

Psikosoziolinguistikaren ikuspegitik, sare soziala aplikazio-maila ezberdinen arteko elkarrengintzarako topagune nagusia da, bertan gizarteko arau sozialak taldeen arteko harremanak, identitate soziala eta pertsonala, portaera sozial indibiduala... ematen direlako (Azurmendi, 1987).

Euskararen erabilera eta honek dituen funtzioak aztertzeko ondorengo mailak hartu dira kontuan sare sozialean (Espí, Azurmendi eta Arratibel, 1993; Arratibel, 1999):

- Gertuko sarea: gizabanakoak normalki interakzionatzen duen taldea: familia, lagun eta ezagunekin egiten duen euskararen erabilera. Maila honetan gurasoak, bikotekidea, seme-alabak, lagunak, lehengusuak, bizilagunak eta lankide eta ikaskideak sartzen dira.
- Urrutiko sarea: ezezagunekin egiten diren kanpo-erabilerak: eguneroko interakzio-zirkulutik kanpo daudenak eta erlazio urriagokoak. Maila honetan sartzen dira: kalea, dendak, tabernak, jaiak, zerbitzuak, kirola eta aisialdia.

Saretik kanpo, ondorengo erabilera-mailak bereizten dira:

- Norbanakoaren kanpo-erabilera: gizabanakoak interakzio beharrik gabe egiten dituen norbanako-erabilera edo erabilera indibidualak dira hauek, baina kanpo-portaera eskatzen dutenak: liburu eta aldizkariak irakurtzea, irratia entzutea, telebista ikustea, musika entzutea eta idaztea.
- Norbanakoaren barne-erabilera: gizabanakoak maila kognitiboan egiten dituen barne-erabilerak dira hauek: kontuak egitea, haserretzea, pentsatzea eta amets egitea.

I.Garciaren tesian sare soziala bi eratan erabili da. Batetik, euskararen erabilera neurtzeko (gertuko sarea, urrutiko sarea, norbanakoaren kanpo-erabilera eta norbanakoaren barne-erabilera) eta bestetik, sare sozialeko kideen euskararen ezagutza-maila neurtzeko (gertuko sarea eta urrutiko sarea).

2.1.3.-Jarrerak

Jarrerak, orokorrean, portaerak azaltzeko oso garrantzi handia dute, baita hizkuntza-portaerak azaltzeko ere. Hau ere euskararen ikaskuntzan eta erabileraren tradizioan ematen da.

Tradizio psikosozialean jarrerak eta beste prozesu psikosozial batzuk (hautemate soziala, usteak, irudikapen soziala, ebaluaketa, motibazioa edo identitate soziolinguistikoa) askotan ez dira oso garbi bereizten. Adibidez, motibazioa eta jarrerak batera ikertu ohi dira, batez ere bigarren hizkuntzen jabekuntzaren iker-eremuan. Jarrerak hizkuntza-portaera, komunikazioa eta erabilera azaltzeko duten garrantzia kontuan hartuta, lan honetan ere kontuan hartzeko aldagaia izango da jarrerarena.

Euskal Herriko tradizioan, Arratibelek (1999) bigarren hizkuntzaren eskurapen-prozesua azaltzeko erabili izan diren teoria eta eredu ezberdinen ikuspegi zabala ematen du. Bertan bere eredu teorikoa ere proposatzen du, jarrerak toki garrantzitsua hartzen dutelarik. Arratibelek (1999) ondorengo eredu teoriko integratzaileak bereizten ditu, zeinetan jarrerak errol berezia betetzen baitute:

- Gardner eta Lambertena (1972). Eredu teoriko honetan hiru orientazio motibazional mota bereizten dira:

- Orientazio integratiboa: motibazio-mota honen bidez exotaldearekiko hurbiltasuna bilatzen da. Hizkuntza exotaldean integratzeko bide bihurtzen da.
- Orientazio instrumental edo pragmatikoa: errekonozimendu soziala edo abantaila ekonomikoak bilatzen dira.
- Orientazio komunikatiboa: beste taldeko hiztunekin komunikatzeko nahia adierazten da.

Euskal Herriaren testuinguruan helduen euskalduntze-prozesuan gehien agertzen den orientazio motibazionala integratiboa izaten da (Arratibel, 1999).

- Sánchez Carrionek (1987) proposaturiko hizkuntzaren hautemate-, motibazio- eta erabilera prozesuak lotzen dituen eredua. Eredu horren garrantzia hizkuntzaren jabekuntza, gaitasun-maila eta erabileraren arteko elkarreraginean datza.

- Richardsek (1993) proposaturiko jarrera etnolinguistiko eta motibazio intrinseko/estrinsekoen eredua. Eredu honetan jarrerak eta motibazioa ez dira bereizten. Bi motibazio mota aurki daitezke:

- Intrinsekoa: pertsona bakoitzaren barneko arrazoiekin lotzen dena (barne-nahia, autoestima, helburu pertsonalak...).
- Estrinsekoa: pertsona bakoitzaren kanpoko arrazoiekin lotzen dena (integratzailea, instrumentala, komunikatiboa).

•Euskararen jabekuntzaren arloan jarrerak eta motibazioak eredu ezberdinetan integratu ohi dira. Orokorrean, jarrerak motibazioak baino indar handiagoa azaltzen dute jabekuntza-prozesua esplikatzeko. Horrela, euskara eta euskal hiztunekiko aldeko jarrerak eta motibazio integratiboa eta intrinsekoa positiboki erlazionatuak agertzen dira, baita euskararen gaitasun-maila altuekin ere.

I.Garciak bere tesian hizkuntza-taldeekiko (euskaldunak zein erdaldunak) eta euskararekiko jarrerak neurtu ditu.

2.1.4.-Identitate etnolinguistikoa: lurraldea, hizkuntza, kultura eta nazioarekiko identifikazioa

Identitate etnolinguistikoaren aldagaia ondorengo arrazoiengatik erabili du tesiaren egileak:

-Euskal testuinguruan euskara identifikazio etnikorako kategoria garrantzitsutzat jotzen delako.

-70. hamarkadatik tradizio psikosozialean (tesiaren ikuspegi teoriko nagusia) gehien erabiltzen den denominazioa delako.

Identitate etnolinguistikoa identitate sozial mota bat bezala ulertzen da, kategoria etnikoetan oinarritzen den identitate soziala, alegia.

Identitate sozialaren teoria (IST) gaur egun eta ikuspegi psikosozialetik taldeen arteko teoriarik garrantzitsuena da, taldeen arteko harremanak eta portaerak esplikatzen dituen teoria integratzailea delako. Integratzailea da alderdi kognitibo (taldeen eta taldekideen bereizgarritasunarekin lotzen dena), afektibo (pertenentziaren jarrerekin lotzen dena) eta motibazionalak (pertsonek eta talde-onura bilatzeko erabiltzen diren prozesuak) biltzen dituelako.

Testuinguru horretan sortu eta garatu da identitate etnolinguistikoaren teoria (IELT). IELTk bere ekarpenekin eragina izan du ISTaren garapenean. Hauetako ekarpen bat, identitate-ikerketa psikosozialean, alderdi soziologikoen garrantzian datza, bai identitate kolektiboa eta bai identitate etnikoa ikertzerakoan ere (Fishman, 1977,1985,1989,1991) analisi eta aplikazio-maila orokorrean ematen zaien garrantziagatik eta garai batean ikuspegi soziologikotik ikertuak izan ziren fenomeno berrinterpretazio psikosozialagatik: mugimendu sozialak, boterearen teoriak, gatazka soziala, gabezia erlatibo objektiboa, nazionalismoa... Gaur egun fenomeno hauek identitatearekin lotzen dira, bereziki identitate etniko edo etnolinguistikoarekin.

Identitate etnolinguistikoa euskararen jabekuntza eta euskararen erabilera azaltzeko ahalmen handia du. I.Garciaren tesian, beraz, identitate etnolinguistikoa neurtzeko lau osagai hartu dira kontuan: lurraldea, hizkuntza, kultura eta nazioarekiko identifikazioak.

3.-IKERKETA ENPIRIKOA: Euskararen erabilera azaltzeko I. Garciak proposatzen duen eredu psikosoziolinguistikoa

3.1.-Euskararen erabilera baldintzatzen duten hiru aldagaiak

Euskararen erabilera hiru aldagai-motek baldintzatzen dute: aldagai soziodemografikoek, aldagai psikosozialek eta sare sozialarekin zerikusia duten aldagaiek.

Aldagai soziodemografikoak testuinguru mikrosozialeko aldagaiak dira.

Aldagai psikosoziala bizitasun etnolinguistikoko subjektiboa, jarrerak eta identitate etnolinguistikoa osatzen dute.


Beste bi aldagai-moten lotura eginez, sare sozialarekin zerikusia duten aldagaiak daude.

Guzti hau integratuz, euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziolinguistikoa proposatzen du egileak.

-Euskal Herriko egoera sozio-historikoa dugu hasieran eta bertan ematen den talde eta hizkuntza etnikoen arteko ukipena. Talde eta hizkuntza bakoitzak bizitasun etnolinguistikoko jakin bat du, euskal testuinguruaren barruan, euskalduna menperatua, estatus baxukoa eta gutxiengoa izanik. Testuinguruak (batez ere testuinguruan dagoen euskaldunen batezbestekoak) gizabanakoen hainbat ezaugarritan izango du eragina, besteak beste komunikazio-sare sozialean, hautemateetan, jarreretan eta identitatean.

-Sare sozialean pertsonen arteko eta taldeen arteko harremanak gertatzen dira eta, hauen bitartez, egoerari buruzko ezaugarriak barneratzen dira.

-Barneratze horren ondorioz, gizabanakoek beraien hautemateak, usteak, jarrerak eta identitatea garatzen dituzte, prozesu psikosozial horien bidez testuingurua birmoldatuz. Prozesu horren ondorioz, portaera jakin batzuk emango lirateke hizkuntzaren aukeraketarekin zerikusia dutenak.



3.2.-Ikerketa enpirikoa

Ikerketa enpiriko horretan sarrera teorikoan azaldutako teoriak (sare soziala, jarrerak, bizitasun etnolinguistiko subjektiboa eta identitate etnolinguistikoa) aztertu ditu egileak euskararen erabilera azaltzeko.

3.2.1.-Helburuak:

a) Identitate etnolinguistikoaren egituraketa aztertzea: identitate etnolinguistikoa nola antolatzen den ikusi eta zein osagai osatzen duten aztertu. Lau dira kontuan hartu diren osagaiak: lurraldea, nazioa, hizkuntza eta kultura.

b) Identitate etnolinguistikoaren arabera subjektuen sailkapena eta lortutako taldeen profil psikosoziala egitea: aurkitutako identitate-osagai ezberdinez baliatuz, subjektuen sailkapen bat egin eta ikuspegi psikosozial batetik, sortutako taldeen arteko ezberdintasunak azpimarratu.

c) Euskararen erabilera azaltzeko ereduaren baliagarritasuna frogatzea: osatutako eredu psikosoziolinguistiko-esplikatzaileraren enpirikoki balidatzea, aldagaien artean zeintzuk diren garrantzitsuenak azpimarratuz.

3.2.2.-Metodologia

a) Lagina

Erabilitako lagina 703 ikasle unibertsitarik osatu dute. Horretarako Hego Euskal Herrian dauden lau unibertsitate hartu ziren kontuan: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Campusak), Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa, guztira datu-bilketa 21 fakultate edo eskola unibertsitaritan egin zuten.

Lagina aukeratzeko zorizko laginketa geruzatua erabili zen, geruza bakoitzaren kategorien arteko oreka mantentzeko, honako irizpideak erabiliz:

-Ikaketa-mota: unibertsitate bakoitzean, titulazioak bi kategoriatan bereizi ziren: zientzia teknikoak eta gizarte-zientziak.

-Maila: fakultate eta eskola bakoitzean, aurreneko eta azkeneko mailako ikasleak aukeratu ziren.

-Ikasketen hizkuntza: euskaraz zein gaztelaniaz ikasten duten ikasleak aukeratu ziren. Aipatu behar da zenbait ikastetxetan euskaraz ikasteko aukerarik ez zegoenez, irizpide hori ezin izan zela erabili zentru guztietan.

Azkeneko lagina matrikulatuta zeuden ikasleetatik %5 osatu zuten.

b) Erabilitako galdesorta

Lan horretarako bi zatitan eraturiko galdesorta egin zen. Lehenengo atala, test sozio-linguistiko-demografikoa osatzen zuten galderez osatua eta bigarrena, test psikosoziala.

Lehenengo atalean honako aldagaiak neurtu ziren: sexua, adina, jaioterria, subjektuen bizi-herria, lehen hizkuntza, gurasoen jaioterria, gurasoen lehen hizkuntza eta ikasketetan jarraitutako hizkuntza-eredua.

Bigarren atalean, berriz, ondorengo aldagaiak neurtu ziren: euskarazko ezagutza-maila, subjektuaren sarearen euskara-maila, subjektuaren euskararen erabilera (sarean eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan), identitate etnolinguistikoa (lurraldearekin, hizkuntzarekin, kulturarekin eta nazioarekin zerikusia dutenak), euskararekiko eta euskaldunekiko bizitasun etnolinguistikoa (hautemate subjektiboa zein uste egozentriko/exozentrikoak) eta gaztelania eta espainiarrekiko bizitasun etnolinguistikoa (hautemate subjektiboa zein uste egozentriko/exozentrikoak).

Test psikosozialeko galderen ordena kontuan hartzen badugu, zera esan daiteke: lehenengo, subjektuaren sare sozialari buruzko galderak egin ziren, identitateari buruzkoak ondoren, jarrerak gero, eta euskararen bizitasunari buruzko usteak, azkenik. Galdesortan jarraitutako ordenak, ordea, ez du inongo eredu teorikorik jarraitzen. Nahita egin zen horrela, ordenak ikuspuntu teorikotik arrastre-efekturik izan ez zezan.

Datu-bilketa ikastetxe ezberdinetan egin zen. Subjektuek eskola-orduetan bete zuten galdesorta, ikerketan parte hartzea derrigorrezkoa ez zela.

Galdesorta erantzuteko erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskaraz ikasten zutenei galdesortaren euskarazko bertsioa eman zitzaien eta gaztelaniaz ikasten zutenei, gaztelaniazkoa.

Unibertsitarien artean erabilitako galdesorta eranskin doa.

3.2.3.-Hipotesiak

a) Identitate etnolinguistikoa neurtzeko erabilitako itemak bi osagai nagusitan biltzea espero zen. Bi faktoreen edukiari dagokionez, bata 'euskal identitateari' eta besteak 'espainiar identitateari' erreferentzia egingo zion.

b) Identitatearen arabera lortutako taldeak ongi diskriminatuak egongo ziren aldagai psikosozialetan.

c) Euskararen erabilera aurrikusteko osatutako eredu psikosoziolinguistikoa baliagarria izatea espero zen eta aldagai psikosozialetatik garrantzitsuena identitate etnolinguistikoa izatea.

4.-EMAITZAK

4.1-Identitate etnolinguistikoaren egituraketa

Gogoratu behar da identitate etnolinguistikoan lau osagai hartu zirela kontuan: lurraldea, nazioa, hizkuntza eta kultura.

Faktorialak bost faktore sortu zituen baina faktoreek azaltzen zuten bariantzaren portzentaia kontuan hartuta (bariantzaren %10 baino gutxiago azaltzen zuten), lehenengo bi faktoreak erabili ziren. Lehenengo faktorea osatzen zuten itemak honakoak ziren: euskal identitate nazionala, Euskal Herriarekiko identitate territoriala, euskal kulturarekiko identitatea, euskaldun- eta elebidun-identitate linguistikoak eta euskal identitate nazionala. Faktore horri euskal identitatea deitu zioten. Item horiez osatutako eskalaren alfa.88koa izan zen.

Bigarren faktorean ondorengo itemak aurkitzen ziren: espainiar eta euskaldun nahiz espainiar identitate nazionala, espainiar identitate territoriala, erdaldun identitate linguistikoa, espainiar kulturarekiko identitatea eta europear identitate territoriala. Faktore hori espainiar identitatea izendatu zuten. Item horiez osatutako eskalaren alfa.85koa izan zen. Aipatzekoa da faktore horretan euskal identitate linguistikoa negatiboki koerlazionatuta aurkitzen zela.

4.2-Subjektuen sailkapena identitatearen arabera eta taldeen arteko konparaketa

Atal horretan lagineko subjektuak identitatearen arabera sailkatzeko, identitatea neurtzeko itemekin egindako azterketa faktorialean lortutako lehenengo bi faktoreak erabili ziren. Horretarako, bi faktore, aldagai konposatuak kontsideratuz, dikotomizatu egin ziren batezbestekoak erabiliz. Hori burutzeko subjektuen puntuazio faktorialak erabili ziren. Bi aldagai dikotomizatu horiek gurutzatuz, ondorengo banaketa lortu zen.

Subjektuen banaketa identitatearen arabera (subjektu-kopurua eta batezbestekoa)

		Espainiar identitatea	
		Baxua	Altua
Euskal identitatea	Baxua	123 (%17,5) Anomikoak	145 (%20,6) Espainiarrak
	Altua	243 (%34,6) Euskaldunak	192 (%27,3) Kulturbidunak

4.3.-Identitatearen arabera egindako taldeen profil psikosoziala

Euskaldunak: subjektu hauen euskarazko ezagutza-maila altua da; sare sozial euskalduna dute; beraien sarean eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan euskara eta gaztelania neurri berdinean erabiltzen dituzte; euskara eta euskaldunekiko jarrera positiboa dute; erdaldunekiko jarrera ere positiboa dute; gaztelaniaren bizitasun etnolinguistikoa euskararena baino altuago hautematen dute; euskaraekiko asmo onak azaltzen dituzte eta etorkizunarekiko baikorrak dira.

Kulturbidunak: subjektu hauen euskararen ezagutza ertaina da; sare sozial nahikoa euskalduna dute; beraien sarean eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan gaztelaniaz aritzen dira; euskara eta euskaldunekiko jarrera positiboa dute, erdaldunekiko jarrera ere positiboa dute; gaztelaniaren bizitasun etnolinguistikoa euskararena baino hobea dela ikusten dute; etorkizunean egoerak bere horretan jarraituko duela diote.

Espainiarrak: subjektu hauen euskarazko ezagutza baxua da; sare sozial erdalduna dute; beraien sarean eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan gaztelaniaz aritzen dira soilik; euskara eta euskaldunekiko jarrera neutroa dute; erdaldunekiko jarrera, berriz, positiboa dute; gaztelaniaren bizitasun etnolinguistikoa euskararena baino hobea dela ikusten dute; etorkizunean egoerak bere horretan iraungo duela esaten dute.

Anomikoak: subjektu hauen euskarazko ezagutza baxua da; sare sozial erdalduna dute; beraien sarean eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan gaztelaniaz aritzen dira soilik; euskara eta euskaldunekiko jarrera neutroa dute; erdaldunekiko jarrera, berriz, positiboa; gaztelaniaren bizitasun etnolinguistikoa euskararena baino hobea dela diote; etorkizunean egoera aldatu egingo dela esaten dute.

4.4.-Euskararen erabilera azaltzeko proposatutako eredu psikosozialaren baieztapena

Egiturazko eredu-analisisa kobariantza-matrize batetik abiatzen den analisi kausala da. Matrize hori erabiliz, ikertzaileak berak erabilitako aldagai eta eredua eratzen duten konstruktuen arteko erlazioa neurtzen ditu, konstruktuen arteko lotura kausalak aztertuz. Abiapuntutzat, ikertzaileak aurretik hipotetizaturiko eredu teoriko bat hartzen du 'euskararen erabilera azaltzeko eredu psikolinguistikora' heltzeko.

Lortutako ereduan hiru aldagai latente daude: lehena, aldagai soziodemografikoek osatzen dutena; bigarrena, aldagai psikosozialek osatuta; eta, hirugarrena, euskararen erabilerari dagokiona.

Lehen aldagai latentean behatutako aldagaiak subjektuen jaioterria eta bizi-herriaren euskaldunen batezbestekoa dira, hots, hizkuntzaren aldetik nolakoa zen subjektuaren testuingurua. Bigarren aldagai latentea aldagai psikosozialek osatzen dute, aldagai horien artean subjektuen euskal identitatea eta subjektuen euskarazko ezagutza-maila izan dira esanguratsuak azaldu direnak. Eredu teorikoan, aldagai horiez gain, bizitasun etnolinguistikoa (hautematea eta usteak) eta euskara eta euskaldunekiko jarrerak proposatzen dira euskararen erabilera aurrikusteko.

Halere, LISREL programak (eredua baliozkotzeko erabilitako programa informatikoa) analisitik kanpo utzi zituen aldagai horiek esanguratsuak ez zirelako.


Hirugarren aldagai latentea eta menpeko bezala funtzionatzen duena, portaerari dagokiona da. Hori subjektuen euskararen erabilera da: bai sarean egiten dutena, bai egoera soziolinguistiko ezberdinetan egiten dutena.

Aipatzekoa da lortutako eredu horretan ez dela agertzen sare sozialari dagokion aldagai latentea, edo beste modu batera esanda, sarearen izaerak ez duela baldintzatzen euskararen erabilera. Eraitza horrek kontraesankorra badirudi ere, kontuan hartzen bada aldagai soziodemografikoan bizi-herriaren eta jaioterriaren euskaldunen batezbestekoa neurtzen dela, logikoa dirudi bi aldagai horiek (soziodemografikoa eta sarea) informazio berdintsua ematen zutenez, parsimoniaren printzipioa jarraituz horietako bat ereditik kanpo geratzea.


Bestalde, aldagai psikosozialen artean subjektuen euskarazko ezagutza agertzen da, hasierako ereduari aldagai hori sare sozialean sartuko zela aurrikusten bazen. Gogoratu behar da ikerketako lagineko subjektu gehienek gaztelania dutela lehen hizkuntza, beraz, subjektu asko euskara familia-girotik kanpo ikasi dute, horrela euskara jakitea, neurri handi batean, subjektuak berak aukeratutakoa da eta horregatik logikoa dirudi aldagai psikosozialen artean agertzea.

Konstruktua teoriko horien arteko erlazio kausalak aztertuz zera ikusi da: euskararen erabilera bi aldagaiek baldintzatzen dutela; alde batetik, aldagai soziodemografikoak, hots, subjektuaren testuinguruak (jaioterriaren eta bizi-herriaren euskaldunen dentsitatea); eta bestetik, aldagai psikosozialak, bertan subjektuen euskarazko ezagutza-maila eta euskal identitatea daudelarik. Bi aldagai horien artean, psikosozialak pisu handiagoa du euskararen erabilera azaltzeko.

Eredua frogatzeko lagin osoa (euskaraz dakitenak eta ez dakitenak) erabili da eta, aldagai garrantzitsuen subjektuen euskarazko ezagutza-maila azaldu da.



Aldagaien arteko harremanetan gehiago sakontzeko, bigarren analisi batean eredua euskaraz egiteko gai diren subjektuekin soilik frogatu da. Bigarren ereduan lehenengo ereduarekiko aldaketa batzuk daude: alde batetik, aldagai psikosozial latentean behatutako bi aldagaiak aurkitzen dira (euskararekiko jarrera eta subjektuen euskal identitatea), bien artean euskal identitatea garrantzitsuena izanik. Gogoratu behar da lagin osoarekin egindako ereduan aldagai psikosozial latentea ere behatutako bi aldagaiek osatzen zutela (euskarazko ezagutza-maila eta euskal identitatea) bien artean euskarazko ezagutza-maila garrantzitsuena bezala azaltzen zelarik. Bestalde, eredu honetan aldagai soziodemografikoek pisu handiagoa dute euskararen erabilera azaltzeko aldagai psikosozialek baino, aurreko ereduan kontrakoa agertzen bazen ere.



5.-ONDORIOAK

Atal honetan I.Garciaren ikerketaren emaitzetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak jasotzen dira.

Euskal eta espainiar identitateetan identitatea neurtzeko erabilitako ezaugarri ezberdinak integratzen direla ikusi da: lurraldetasuna, kultura, hizkuntza eta sentimendu nazionala. Beste ikerketa batzuetan hori ez zen gertatzen (Azurmendi, Bourhis eta Ros, 1998), kultura eta hizkuntza faktore ezberdinetan agertzen ziren. Lan honen emaitza ikusirik, Euskal Herriko egoera normaltzen ari dela esan daiteke eta, horren ondorioz, identitate etnolinguistikok bereiz daitezkeen alderdi edo osagai guztiak integratzen ari direla identitate koherenteak osatuz.

Euskal identitatea eta espainiar identitatea ez dira integratzen, mundu autonomoak bezala aurkitzen ditugu (beste testuinguru batzuetan fenomeno hau ez da gertatzen: Galiziaren kasuan identitate galegoa eta espainiarra faktore bakar batean agertzen ziren).

Identitatearen arabera egindako sailkapenak eta Berryk akulturazio-teoria erabiliz proposatutakoak bat egiten dute. Anomikoak (dekulturazioa edo marjinalizazioa), espainiarrak (asimilazioa), euskaldunak (banatze-efektua) eta kulturbidunak (integrazioa). Aipatutako lau talde horiek ia aldagai psikosozial guztietan ezberdintzen dira, profil psikosozial ezberdinak azalduz.

Identitatea eta euskararen erabilera baldintzatuak daude aldagai soziodemografiko, soziolinguistiko eta psikosozialez. Ereduaren emaitzen arabera testuinguruko aldagaiek pisu handiagoa dute euskararen erabilera azaltzeko aldagai psikosozialek baino.

Identitatearen garrantzia aldagai psikosozialen artean pisu gehien duena izatean datza.

Ereduaren emaitzak kontuan harturik, euskararen erabilera bermatzeko euskararen ezagutza-maila ona ziurtatu beharko litzateke (prozedurarik errazena eta eraginkorrena eskola da eta gaur egun ikasle gehienek eredu euskaldunetan ematen dute izena), hori horrela izanik, badirudi euskararen presentzia ziurtatuta dagoela edo gaur egungoa baino altuagoa izango dela etorkizunean. Horrek horrela jarrai dezan D eredia indartu beharra dago. Bestalde, euskararekiko jarrera positiboak eta euskal identitatea bultzatu eta indartzeko, berriro ere hezkuntza-sistema izan daitekeela tresnarik egokiena dio ikerlariak. Identitateari garrantzi berezia eman behar zaio eta argi dago orain arte identitate integratzailea sortzeko egindako ahaleginek ez diotela mesede handirik egin euskarari (gogoratu behar da identitate kulturbiduna duten subjektuek nahiz eta euskarazko ezagutza-maila ona izan, ez dutela euskara apenas erabiltzen). Beraz, euskararen erabilera bermatu nahi baldin bada, euskal identitatea bultzatzearen aldekoa da egilea.

Amaitzeko ikerlariak lanaren ahuleziak aipatzen ditu, datozen ikerketetan kontuan hartu beharreko zenbait alderdi aipatuz.

Datuak biltzeko prozedura objektiboagoa komenigarria izango litzatekeela dio eta horretarako, behaketa zuzena proposatzen du, batez ere euskararen erabilera neurtzeko euskararen kale-erabilera aztertu duten ikerketetan egin den bezala (BAT 28, 1998).

Galdesortaren eraketari dagokionean ere, aldagaien edukian sakontzeko galdera irekiak erabiltzea komenigarria izango litzateke, horrela galdesortak berak ez lituzke subjektuen erantzunak hainbeste baldintzatuko. Horri oso interesgarria deritzo egileak identitateari dagozkion galderen kasuan.

Azkenik egileak lanaren mugak aipatzen ditu. Alde batetik erabilitako lagina unibertsitateko ikasleez osatutako ‘komententziazko lagina’ dela aitortzen du eta horrek emaitzen orokortasuna mugatzen duela. Dena den, erabilitako lagina Euskal Herriko unibertsitateko ikasleen adierazle izan zedin ahaleginak egin zituela dio egileak. Bestalde, galderen eduki semantiko antzekoa duten galdesorta erabili izanak, koherentzia gehiegizko erantzunak sor ditzakeela aitortzen du. Hori horrela izango balitz ere, aldagaien arteko kobariazio-iturri bakarra izatea ez dela oso probablea dio egileak.

ERANSKINA

**UNIBERTSITARIEN ARTEAN BANATUTAKO
GALDESORTA**

GALDESORTA

NORBERAREN AUTONOMI ELKARTEETAN ‘HETEROGENEITATE KULTURAL’AREN ASPEKTU DESBERDINAK IKERTZEN ARI GAREN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATE DESBERDINETAKO IKERTZAILE TALDE GARA. GALDESORTA HAU, AUTONOMI ELKARTE ELEBIDUNETAKO ZENBAIT ASPEKTU KULTURAL AZTERTZEKO DISEINATUA IZAN DA, KASU KONKRETU HONETAN, EUSKAL AUTONOMI ELKARTE ETA NAFARROAKO AUTONOMI ELKARTEETAKOAK. HEMEN PLANTEATUTAKO GALDEREI BURUZKO IRITZI PERTSONALA INTERESATZEN ZAIGU, ETA HONETARKO ZURE PARTEHARTZEA ESKATZEN DUGU.

ERANTZUTEAN, EZ DA BEHARREZKOA GEHIEGI PENTSATZEA, NAHI DUGUNA LEHEN INPRESIOA DA. GALDESORTA HAUEK ANONIMOAK DIRA, EZ DAGO ERNTZUN ZUZEN EDO OKERRIK, ARRAZOI HONEGATIK, AHALIK ETA ZINTZOTASUN HANDIENAZ ERANTZUTEA ESKATZEN DIZUGU. ARREN, EZ UTZI GALDERARIK ERANTZUN GABE.

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK

ZEIN UNIBERTSITATEAN ZAUDE MATRIKULATUTA?.....

IKASTEN ARI ZAREN FAKULTADE EDO ESKOLA IZENA (ZEIN TITULAZIO)

.....

IKASTEN ARI ZAREN MAILA.....

SEINALA EZAZU X BATEZ DAGOKION LEKUAN:

ADINA.....

SEXUA: GIZONEZKOA
 EMAKUMEZKOA

JAOTERRIA: HERRIA.....
 PROBINTZIA.....

BIZI-HERRIA: HERRIA.....
 PROBINTZIA.....

AUTONOMI ELKARTE HONETATIK KANPO JAIOA BAZARA, ZENBAT DENBORA DARAMAZU
BERTAN BIZITZEN?.....

AITAREN JAOTERRIA: HERRIA.....
 PROBINTZIA.....

AMAREN JAOTERRIA: HERRIA.....
 PROBINTZIA.....

EGINIKO IKASKETAK:

	ZURE AITAK	ZURE AMAK
LEHEN MAILAKOAK (OHO)		
BIGARREN MAILAKOAK (BBB, LH)		
ERDI MAILAKOAK (sekretaritza)		
UNIBERTSITATEKO 1. ZIKLOA		
UNIBERTSITATEKO 2. ZIKLOA		
IKASKETA EZ-FORMALAK		
IKASKETARIK GABEA		
BESTE BAT. ZEIN?		

LAN MOTA EDO OGIBIDEA:

	ZUREA	AITARENA	AMARENA
ZUZENDARIAK, GERENTEAK			
4 SOLDATAPEKO BAINO GEHIAGO DITUEN ENPRESARIA			
4 SOLDATAPEKO BAINO GUTXIAGO DITUEN ENPRESARIA			
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA			
LANBIDE LIBERALAK			
AUTNOMOAK ETA SODATAPERIK EZ DUTEN ENPRESARIAK			
ARDURADUNAK ETA TARTEKO NAGUSIAK			
LANGILEAK ETA PERTSONAL KUALIFIKATUA			
PEOIAK ETA PERTSONAL EZ-KUALIFIKATUA			
ETXEKO LANAK			
LEHEN LANPOSTUAREN BILA			
LANGABEZIAN, LEHEN LANA EGINDAKOA IZANIK			
IKASTEN			
IKASTEN ETA LANEAN			
JUBILATUA, PENTSIONISTA, EZINDUA...			
BESTE EGOERA BATZUK. ZEINTZU?			

ZEIN IZAN ZEN LEHEN HIZKUNTZA

	ZUREA	AITARENA	AMARENA
EUSKARA			
GAZTELANIA			
EUSKARA ETA GAZTELANIA			
BESTE BATZU. ZEINTZU?			

ZEIN HIZKUNTZ-EREDU (A,B,D edo 0) JARRAITU DUZU?

(A=ESKOLARATZEA GAZTELANIAZ ETA GAI BAT EUSKARAZ
 B=ESKOLARATZEA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
 D=ESKOLARATZEA EUSKARAZ ETA GAI BAT GAZTELANIAZ
 0=EUSKARARIK GABEKO ESKOLARATZEA)

	A	B	D	0
ESKOLAURREAN				
OHO _n				
BBB/LH _n				

UNIBERTSITATEAN: GAZTELANIAZ ()
 PARTZIALKI EUSKARAZ ()
 ERABAT EUSKARAZ ()

ZURE IRITZIZ ZEIN DA GAUR EGUN ZURE EUSKARA EZAGUTZA MAILA?

	ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZK A	ZENBAIT HITZ	EZER EZ
EUSKARA MINTZATUA ULER DEZAKET					
EUSKARAZ IRAKURRITAKOA ULER DEZAKET					
EUSKARAZ IDATZ DEZAKET					
ELKARRIZKETA BAT MANTEN DEZAKET					

ONDOREN, ESAIGUZU ZEIN DEN INGURATZEN ZAITUZTEN PERTSONEN EUSKARA EZAGUTZA MAILA:

	ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZK A	ZENBAIT HITZ	EZER EZ
AITA					
AMA					
LEHENGUSUAK					
BIZILAGUNAK					
LAGUNMINAK					
BESTE LAGUNAK					
IKASKIDEAK					

ORAIN, ESAIGUZU ZEIN MAIZTASUNEZ ERABILTZEN DUZUN EUSKARA BERAIEKIN:

BETI EUSKARAZ=1
 EUSKARAZ GAZTELANIAZ BAINO GEHIAGO=2
 BIETARA BERDINTSU=3
 GAZTELANIAZ EUSKARAZ BAINO GEHIAGO=4
 BETI GAZTELANIAZ=5

	1	2	3	4	5
AITA					
AMA					
LEHENGUSUAK					
BIZILAGUNAK					
LAGUNMINAK					
BESTE LAGUNAK					
IKASKIDEAK					

ONDOREN, ESAIGUZU ZEIN MAIZTASUNEZ ERABILTZEN DUZUN EUSKARA ONDORENGO EGOERETAN:

BETI EUSKARAZ=1

EUSKARAZ GAZTELANIAZ BAINO GEHIAGO=2

BIETARA BERDINTSU=3

GAZTELANIAZ EUSKARAZ BAINO GEHIAGO=4

BETI GAZTELANIAZ=5

	1	2	3	4	5
DENDETAN					
UDALETXEAN					
DIPUTAZIOAN					
EUSKO JAURLARITZAN					
POSTETXEAN, INEM					
TABERNETAN					
FESTETAN					
KIROLA EGITEKO					
KALEAN					
LIBURUAK IRAKURTZEKO					
EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK IRAK.					
IRRATIA ENTZUTEKO					
TELEBISTA IKUSTEKO					
IDAZTEKO					
MUSIKA ENTZUTEKO					
DENBORA LIBREKO BESTE EKINTZ.					
PENTSATZEKO					
HASERRETZEN NAIZENEAN					
AMETSETAN					
KONTUAK EGITEKO					

ONDORENGO 'GEOGRAFI TALDEEI' DAGOKIENEAN, ESAIGUZU BAKOITZAREKIKO DUZUN PERTENENTZIA GRADUA:

	ERABAT	NAHIKOA	ERDIZKA	ZERBAIT	BATEREZ
BIZI ZAREN HERRIA EDO HIRIA					
BIZI ZAREN PROBINTZIA					
BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEA					
EUSKAL HERRIA					
ESPAINIA					
EUROPA					
BESTERIK. ZEIN?					

‘NAZIONALITATETAREKIKO’ SENTITZEN NAIZ:

	ERABAT	NAHIKOA	ERDIZKA	ZERBAIT	BATEREZ
EUSKALDUN					
ESPAÑOL					
EUSKALDUN NAHIZ ESPAÑOL					
EUROPEAR					
BESTERIK. ZEIN?					

‘HIZKUNTZAREKIKO’ (Euskaldun=euskal hiztuna, erdaldun=ez euskal hiztuna), SENTITZEN NAIZ:

	ERABAT	NAHIKOA	ERDIZKA	ZERBAIT	BATEREZ
EUSKALDUN					
ERDALDUN					
ELEBIDUN					
BESTERIK. ZEIN?					

ZEIN NEURRITAN SENTITZEN ZARA IDENTIFIKATUA:

	ERABAT	NAHIKOA	ERDIZKA	ZERBAIT	BATEREZ
BIZI NAIZEN PROBINTZIAKO KULTURA					
NIRE AUTONOMI ELKARTEKO KULTURA					
EUSKAL KULTURA					
ESPAINIAR KULTURA					
EUROPAR KULTURA					
BESTERIK. ZEIN?					

HAUETAKO ZEIN BALDINTZA USTE DUZU, ZUK PERTSONALKI, DIRELA BEHARREZKOAK EUSKALDUN IZATEKO. MARKA EZAZU KASU BAKOITZEAN BEHARREZKOTASUN GRADUA.

	OSO BEHARR.	NAHIKO BEHARR.	ERDIZKA	ZERBAIT BEHARR.	BATEREZ
EUSKAL HERRIAN BIZITZEA					
EUSKARAZ ZERTXOBAIT HITZEGITEA					
EUSKALDUN IZATEKO BORONDATEA					
EUSKAL HERRIAN JAI OA IZATEA					
GURASOAK E.H.n JAI OA IZATEA					
ABIZEN EUSKALDUNAK IZATEA					
EUSKARAZ ONDO HITZEGITEA					
EUSKAL HERRIA MAITATZEA					
EUSKAL KULTURAN PARTEHARTZEA					
EUSKAL NAZIOAREN DEFENTSA					
BESTE BAT. ZEIN?					

JARRAIAN KONTRAKOAK DIREN ADJEKTIBO BIKOTEAK AURKEZTEN DIZKIZUGU. BIKOTE BAKOITZETIK EGOKIEN IRUDITZEN ZAIZUNA AUKERATU ETA IRUDITZEN ZAIZIUN GRADUAN'X' BATEZ SEINALATZEA ESKATZEN DIZUGU.

(ADIBIDEA: FUTBOLA IRUDITZEN ZAIT: Futbola 'nahiko itsusia' dela pentsatzen baduzu, erantzuna hau litzateke:

	OSO	NAHIKOA	ZERBAIT	ZERBAIT	NAHIKOA	OSO	
POLITA							ITSUSIA

NIRI EUSKARA IRUDITZEN ZAIT:

	OSO	NAHIKOA	ZERBAIT	ZERBAIT	NAHIKOA	OSO	
ALFERRIKAKOA							BALIAGARRIA
GERTUA							URRUNA
GUTXIENGOARENA							GEHIENGOARENA
GARRANTZITSUA							BALIO GUTXIKOA
EZ-BEHARREZKOA							BEHARREZKOA
MODERNOA							ZAHARKITUA
ZAILA							ERRAZA
INTEGRATZAILEA							DISKRIMINATZAILEA
ELITISTA							POPULARRA
ZIENTIFIKOA							LAGUNARTEKOA
BASERRI-GIROKOA							HIRIKOA
MIRESGARRIA							MESPREZAGARRIA
BESTERENA							NORBERARENA

NIRI EUSKALDUNAK (EUSKAL-HIZTUNEN TALDEA) IRUDITZEN ZAIZKIT:

	OSO	NAHIKOA	ZERBAIT	ZERBAIT	NAHIKOA	OSO	
LANGILEAK							ALFERRAK
BOST AXOLA ZAIZKIT							INTERESGARRIAK
JAKINTSUAK							EZ JAKINAK
POBREAK							ABERATSAK
IREKIAK							ITXIAK
BASERRI GIROKOAK							HIRIKOAK
AZKARRAK							HALANOLAKOAK
INDIBIDUALISTAK							TALDEKOAIAK
PARTEHARTZAILEAK							ERREIBINDIKATZAILEAK
KONFORMISTAK							BAKEZALEAK
FLEXIBLEAK							DOGMATIKOAK
BIOLENTAK							BAKEZALEAK
ATSEGINAK							DESATSEGINAK

NIRI ERDALDUNAK (EUSKAL-HIZTUNAK EZ DIREN TALDEA) IRUDITZEN ZAIZKIT:

	OSO	NAHIKOA	ZERBAIT	ZERBAIT	NAHIKOA	OSO	
LANGILEAK							ALFERRAK
BOST AXOLA ZAIZKIT							INTERESGARRIAK
JAKINTSUAK							EZ JAKINAK
POBREAK							ABERATSAK
IREKIAK							ITXIAK
BASERRI GIROKOAK							HIRIKOAK
AZKARRAK							HALANOLAKOAK
INDIBIDUALISTAK							TALDEKOAIAK
PARTEHARTZAILEAK							ERREIBINDIKATZAILEAK
KONFORMISTAK							BAKEZALEAK
FLEXIBLEAK							DOGMATIKOAK
BIOLENTAK							BAKEZALEAK
ATSEGINAK							DESATSEGINAK

SEINALA EZAZU ZEIN NEURRITAN ZAUDEN ADOS:

GOGORA EZAZU BETI ERE ZURE IRITZIA DELA EZAGUTU NAHI DUGUNA, EGOERAREKIKO ZUK DAUKAZUN INPRESIOA.

TALDE BATEKIKO PUNTUAZIO ALTUAK EZ DU BESTE TALDEAREKIKO PUNTUAZIO BAXUA ADIERAZI BEHAR DERRIGORREZ.

EUSKALDUNAK=EUSKARAZ HITZEGITEN DUTENEN TALDEA
ERDALDUNAK=EUSKARAZ HITZEGITEN EZ DUTENEN TALDEA

ZEIN MAIZTASUNEZ ERABILTZEN DIREA ONDORENGO HIZKUNTZKA BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEKO INSTITUZIO PROPIOETAN (Diputazioan, Udaletxean, Eusko Jaurlaritzan...)

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN, ZENBATERAINOKO KONTROLA DAUKATE ONDOKO TALDEEK EKONOMIA ETA NEGOZIOEN GAIN:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN, ZEIN NEURRITAN DAUDE ONODO ERREPRESENTATUTAK ONDOKO HIZKUNTZAK KOMUNIKABIDEETAN (telebista, irratia, egunkariak...)

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN ZEIN NEURRITAN ERAKUSTEN ETA IKASTEN DIRA ONDORENGO HIZKUNTZAK IKASTETXEETAN:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN, ZENBATERAINOKO KONTROLA DAUKATE ONDOKO TALDEEK POLITIKAREN GAINEAN:

	HANDIA	NAHIKOA	TARTEKOA	TXIKIA	OSO TXIKIA
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN, ZENBATERAINO DAUDE ONDO ERREPRESENTATUAK ONDOKO HIZKUNTZAK NEGOZIO MUNDUAN:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN, ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO ERREPRESENTATUTAK ONDOKO TALDEAK BIZITZA KULTURALEAN:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN, ONDORENGO HIZKUNTZAK ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

ZURE HERRIAN, ONDORENGO HIZKUNTZAK ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

ESPAINIAN, ONDORENGO HIZKUNTZAK ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

NAZIOARTEKO MAILAN, ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK ONDORENGO HIZKUNTZAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN, ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK ONDORENGO TALDEAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ADIERAZ EZAZU BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEKO POPULAZIOA ZEIN PROPORTZIOAN DAGOEN ONDORENGO TALDEEK OSATUA:

	GEHIENGO HANDIA	GEHIENGOA	ERDIAK	GUTXIENGOA	GUTXIENGO HANDIA
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ZU BIZI ZAREN INGURUAN –HERRIA EDO HIRIA- ZEIN MAILATAN DIRA GEHIENGOA EDO GUTXIENGOA ONDOKO TALDEAK:

	GEHIENGO HANDIA	GEHIENGOA	ERDIAK	GUTXIENGOA	GUTXIENGO HANDIA
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ZEIN NEURRITAN EZKONTZEN DIRA ONDOKO TALDEETAKO KIDEAK BEREN TALDEKO KIDEEKIN SOILIK:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIAK	GUTXI	BATEREZ
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ZEIN NEURRITAN ARI DIRA JOATEN ONDORENGO TALDEAK BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTETIK:

	ASKO	NAHIKOA	BATZUK	GUTXI	BATEREZ
UNIBERTSITARI EUSKALDUNAK					
UNIBERTSITARI ERDALDUNAK					
LANGILE EUSKALDUNAK					
LANGILE ERDALDUNAK					

ADIERAZ EZAZU BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEKO POPULAZIOAN ZEIN NEURRITAN GEHIENGOA EDO GUTXIENGOA DIREN ONDORENGO TALDEAK:

	GEHIENGO HANDIA	GEHIENGOA	ERDIAK	GUTXIENGOA	GUTXIENGO HANDIA
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN, LAN MUNDUAN ONDORENGO HIZKUNTZAK ERABILTZEN DIRA:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZARENEKO AUTONOMI ELKARTEAN, ZEIN NEURRITAN DAUDE ONDO KONTSIDERATUAK ONDORENGO TALDEAK:

	OSO ONDO	NAHIKO ONDO	ERDIZKA	NAHIKO GAIZKI	OSO GAIZKI
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN HEZKUNTZ SISTEMAN ONDORENGO HIZKUNTZAK ERABILTZEN DIRA:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

BIZI ZAREN AUTONOMI ELKARTEAN ZENBAT UDAL, SOZIAL ETA OSASUN ZERBITZU ESKAINTZEN DIRA ONDORENGO HIZKUNTZATAN:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKARA					
GAZTELANIA					

GAUR EGUN ZEIN NEURRITAN USTE DUZU DIRELA AKTIBOAK ETA DINAMIKOAK EAE-KO ONDOKO TALDEAK BEREN INTERESAK DEFENDATZERAKOAN:

	OSO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ZEIN MAILATAN USTE DUZU IZANGO DIRELA TALDE HAUEK AKTIBO ETA DINAMIKOAK 10 EDO 20 URTE BARRU:

	OSO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	OSO GUTXI
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ADIERAZ EZAZU ZEIN BAIEZTAPENAREKIN ZAUDEN ADOS:

ONDORENGO TALDEEN PERTSONA KOPURUA GEHITZEKO ZERBAIT EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE:

	OSO ADOS	NAHIKO ADOS	ERDIZKA	NAHIKO DESADOS	OSO DESADOS
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ETORKIZUNEAN, LAN MUNDUAN ONDORENGO HIZKUNTZAK ERABILTZEA GUSTATUKO LITZAIDAKE:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

ONODRENGO TALDEEN ESTATUSA GEHITZEKO ZERBAIT EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

ETORKIZUNEAN NIRE ESKOLAKO EKINTZETAN ONDORENGO HIZKUNTZA ERABILI NAHI DUT:

	ASKO	NAHIKOA	ERDIZKA	GUTXI	BATEREZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

KANPOTIK ETORRITAKO GIZABANAKOAK ELKARTE AUTONOMOAN BIZITZEN JARRI BALIRA BERAIEK NIREKIN NOIZBEHINKA ONDORENGO HIZKUNTZETAN KOMUNIKATZEA NAHI NUKE:

	BETI	GEHIENETAN	BATZUTAN	GUTXITAN	INOIZ EZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

HAINBAT GOBERNU ZERBITZUREKIN KONTAKTUAK DITUDANEAN (HERRI, GIZARTE, OSASUN MAILAKOAK) ELKARTE AUTONOMOAN ONDORENGO HIZKUNTZETAN KOMUNIKATU NAHI NUKE:

	BETI	GEHIENETAN	BATZUTAN	GUTXITAN	INOIZ EZ
EUSKARA					
GAZTELANIA					

GAUR AUTONOMI ELKARTEAN ONDORENGO TALDEEN INDARRA ETA SENDOTASUNA GEHITZEKO ZERBAIT EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE:

	OSO ADOS	NAHIKO ADOS	ERDIZKA	NAHIKO DESADOS	OSO DESADOS
EUSKALDUNAK					
ERDALDUNAK					

II.-EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN PROZESU PSIKOSOSIALAK: UDALETXE BATEKO LANGILEAK.

1.-SARRERA

Sarrera nagusia aipatu denez, atal honetan garatzen den lanak I.Garciaren tesia izan du oinarri eta ardatz. Horrek esan nahi du tesiak izan duen oinarri teoriko bera erabili duela udal-langileak aztergai izan dituen lanak ere.

Bai tesiak, bai lanak biek izan dute gai nagusi euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak. Aztergaia, ordea, aldatu egin da. Eta aztergaiaren aldaketak hainbat egokitzapen egin beharra ekarri du berarekin.

Alde batetik, aztergaiaren izaerak berak eskatu du lehenengo aldaketa. Galdersortaren zenbait galdera egokitu, aldatu, ezabatu edo gehitu behar izan dira.

Bestetik, aldaketa horiek bi lanen hainbat alderdi alderaezinak izatea izan du ondorio.

Azkenik, tesian lortutako eredia udal-langile hauen kasuan ez dela baliozkoa frogatu da.

2.-IKERKETA ENPIRIKOA

2.1.-Helburua

Lan honen helburu nagusia I.Garciak unibertsitarien artean lortutako eredia udal bateko langileen kasuan baliagarria ote den aztertzea izan da.

Esan denez, udal bateko langileak izan dira lan honetan aztergai. Hasiera batean asmoa ez zen izan udal batekoak bakarrik aztertzea, egoera soziolinguistikoko ezberdinetako zenbait udaletakoak baizik. Zehazkiago 86/1997 Dekretuan¹ egiten den sailkapen laukoitzetik adibide bana hartu nahi zen.

Aipatutako Dekretuan erakundeek bete beharreko derrigortasun-indizea² kontuan hartuta dago egina sailkapen hori, hots, udalaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Sailkapen horretan, udalak lau multzotan daude banatuta bete beharreko derrigortasun-indizearen arabera:

- Udalak bete beharreko derrigortasun-indizea %0tik %25 artekoa denean.
- Bete beharreko derrigortasun-indizea %25etik %45 artekoa denean.
- Bete beharreko indizea %45etik %70era doanean.
- Bete beharrekoa %70etik %100era iristen denean.

¹ 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

² Erakunde batek derrigorrez bete beharreko indizea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen euskararen ezagutzari buruz Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan eta, hala badagokio, datu horiek egiaztatzeko taula orokorretan jasotako informazioa kontuan hartuta aterako da jarraian aipatzen den eran: Euskaldunak+(1a Euskaldunak/2)

Hasiera batean egin nahi zen moduan egin izanez gero, lanaren helburua bikoitza izango zen. Alde batetik, egoera soziolinguistiko ezberdinetako udalak aukeratuko ziren eta horien egoera aztertuko zen eta bestetik, udal horietako langileen eta unibertsitarien arteko emaitzak alderatuko ziren. Baina horrelako lan batek mugak ditu eta lan horrek luzeegi joko zuen bai denboran, bai paperean.

Beraz, azkenean helburu xumeago bat xede, hasierako helburuari uko egin eta beste bigarren hau hartu behar izan zen ardatz, udal bakarra aukeratu behar izatea, alegia.

Delako udalak %79,26ko derrigortasun indizea duen Gipuzkoako udal bat izan zen, 20.000 lagun inguru dituen, eta euskaldunen batezbestekoa %72,17koa duena.

2.2.-Metodologia

2.2.1.-Lagina

Arestian esan bezala, galdesorta udal bakar batean banatzea erabaki zen. Hautatuko udala bi arrazoiengatik izan zen hautatua. Batetik, udal horretan Udaleko Euskara Planaren Proposamena prestatzen ari zirelako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ereduaren arabera, eta bestetik, oso denbora gutxi zelako eredu horretako Banakako Galdesorta izeneko inkesta langileen artean banatu zutela eta esandako galdesorta hori jaso zuten langileen %70ek bete zutelako.

Gauzak horrela, lana osatu ahal izateko galdesorta udalean banatzeko baimena eskatu zitzaion alkateari idatziz, baita baiezkotzeko erantzuna jaso ere alkateordearen aldetik.

Eta inkesta banatzeko eguna iritsi zen, ekainaren 18a, greba-egunaren bezpera, baina denbora aurrera zihoala ikusita, aukera hoberik ez, eta egun horretan bertan banatu ziren horretarako prestatutako 142 aleak. Banaketa egin zenean hilaren 21erako galdesortak beteta beharko zirela esan zitzaien udaleko langileei, nahiz eta jakin bagenekien greba-eguna(k) tartean, batzuri ahaztu egingo zitzaizela, eta uztailaren lehenengo astera arte itxarotea erabaki zen azkenengo aleak jasotzeko, inkesta banatu zen hurrengo astean ere, herriko jaiak izaki, udal langileek beste hiru egun jai izan baitzituzten.

Uzta ez zen espero bezain emankorra izan, banatutako 142 aleetatik 48 besterik ez ziren beteta jaso. Esan beharra dago inkestak banatu ziren garaia ez zela aproposena izan, hain zuzen ere, ordurako udal-langile batzuk oporretan zeudelako. Baina besterik ezean garai hori aukeratu behar izan zen. Horri gehitu behar zaio udaleko administrazio-atal bateko zenbait langilek susmo txarra hartu ziotela nonbait galdesortari eta 'langileen jarrera politikoari buruzko' galderak egiten zirelako aitzakian galdesorta ez erantzutea erabaki zutela, eta erabakiak, bistan da, eragina izan zuen beste lankide batzuegan.

Esan beharra dago horrelako egoerak saihestu asmoz, argi eta garbi utzi nahi izan zitzaizela langileei zein zen lan honen helburua eta helburu horretxerekin banatu zitzaizela langile guztiei gutun bana galdesorta banatu baino egun gutxi batzuk lehenago.

Banatutako galdesortaren euskarazko zein gaztelaniazko bertsioak prestatu ziren udalean bai baitzeuden hiruzpalau lagun euskarazko galdesorta erantzuteko gai izan ez edota gaztelaniaz erantzutea nahiago izango zutenak. Dena den, betetako galdesorta guztiak euskaraz jaso ziren.

2.2.2.-Erabilitako galdesorta

Lan honetan erabilitako galdesorta I.Garciak bere tesian erabilitako galdesorta egokitua izan da. Egokitze horren arrazoia aztergai bertan dago. I.Garciarenak unibertsitariak ziren bitartean, lan honetakoak udal-langileak izan dira. Dena den, batean zein bestean oinarria berdina izan da eta bietan ere galdesorta bi ataletan banatua izan da. Lehenengoa, test sozio-linguistiko-demografikoa osatzen duten galderei dagokiena da eta bigarrena, test psikosoziala.

Esan beharra dago, I.Garciaren eredua egokitua baino gehiago laburtua izan dela nagusiki, lanerako behar-beharrezkoak iruditzen ez zitzaizkidan galderak saihestuz, batez ere galdetegi laburragoa egiteko helburuarekin, galdetegi luzeegia banatzeak berau ez erantzuteko arriskua ekarriko zuelako.

Datu soziodemografikoei buruzko galderetan, esate baterako, egokitzapen gutxi batzuk besterik ez ziren egin behar izan. Ez zeukan zentzurik udaleko langileari, adibidez, zein unibertsitatetan ari zen ikasten galdetzea. Gurasoek zer lanbide zuten galdetzea ere lekuz kanpo zegoen udaleko langileen kasuan.

Aldiz, interesgarria zen langilea zein administrazio-ataletan ari zen lanean, betetzen ari zen lanpostuari zegokion hizkuntza-eskakizuna edo langileak berak lortutako hizkuntza-eskakizunik altuena zein zen jakitea.

Hizkuntzaren gaineko iritziei buruzko galderak gorde egin ziren bitartean, euskaldunekiko eta erdaldunekiko iritziei buruzkoak ezabatu egin ziren galdera gatazkatsuak izan zitezkeelakoan.

Udalean erabilitako eredua eranskin doa.

3.-EMAITZAK

Arestian aipatu bezala, ez ziren espero izandako adina galdesorta jaso, banatutako 142 aleetatik 48 ale jaso ziren beteta, hau da, %33,8. Arrazoiak zein izan zitezkeen ere aipatu dugu lehentxeago. Baina errepara diezaiegun jasotako galdesorten emaitzei.

Datu-bilketa antolatzeke SPSS 10.1 for Windows programa erabili zen eta behin datu-bilketa eginda, aldagai bakoitza faktore bakar batean bildu eta korrelazio-matrizea lortu LISREL programaren bitartez eredu baliozkotzeko. Aipatutako programa informatikoak proposatutako eredu teorikoa eta datu enpirikoen arteko egokitasuna neurtzen du.

Ondorioetan zehazkiago azalduko den arren, esan beharra dago LISRELe ez zuela I.Garciak proposatutako eredu teorikoa udal honen kasuan baliozkotzat eman. Horrexegatik, hain zuzen ere, maiztasunen tauletan jasotako emaitzak bakarrik izango ditugu aipagai puntu honetan.

SPSS 10.1 programak emandako emaitzei so egiten badiegu, beraz, ondorengoak aurkituko ditugu:

3.1.-Aldagai soziodemografikoei buruzkoak

3.1.1.-Sexua

Erantzun duten 48 lagunetatik 43, hau da, %89,6 emakumezkoak dira eta gainontzeko 5ak gizonezkoak, %10,4. Esan beharra dago udalean lanean diharduten 142 lagunetatik 80 emakumezkoak direla eta gainontzeko 62 gizonezkoak. Beraz, udalean lanean ari diren emakume guztietatik %53,75ek erantzun du inkesta eta gizonezkoetatik %8k.

3.1.2.-Adina

48 lagunetik 40k bakarrik eman dute adinaren berri, hau da, % 83,3k. Horietatik %82,5 (N=33) 24 eta 42 urte artean daude eta gainontzekoak, % 17,5 (N=7) 43 eta 60 urte artean. Erantzun duten langile guztien arteko adinaren batezbestekoa 37,35 urtekoa da.

3.1.3.-Jaioterria

48tik 47k erantzun diote galdera honi (%97,9). 47 horietatik 46 Gipuzkoan jaioak dira eta horietatik erdia, 23, herrian bertan.

3.1.4.-Jaioterria euskaldun-kopuruaren arabera

Zehazki zein herritan jaio diren erantzun dutenak %91,7 dira, hots N=44. Horietatik 28 (%63,8) euskaldunen kopurua %70tik gorakoa duen Gipuzkoako herriren batean jaioak dira. Herri guztien arteko euskaldunen kopuruaren batezbestekoa %63,7koa da.

3.1.5.-Bizi-herria

Galdera honi ere 47 lagunek erantzun diote. Horietatik 33 (%68,8) herrian bertan bizi dira eta gainontzekoak Gipuzkoako beste herriren batean.

3.1.6.-Lan-hitzarmena

Langile guztiek erantzun dute galdera hau eta esan behar da %43,8 (N=21) karrerako funtzionarioak direla, %27,1 (N=13) bitarteko funtzionarioak, %14,6 (N=7) aldibaterako langileak, %8,3 (N=4) langile finkoak, %4,2 (N=2) behin-behineko langileak eta %2,1, hau da, langile bakarra, guzti horien artean praktikaldian dagoen funtzionarioa.

3.2.-Aldagai soziolinguistikoak

3.2.1-Langileen lehenengo hizkuntza

Langile guztietatik %83,3k (N=40) euskara izan du lehenengo hizkuntza, %12,5ek (N=6) euskara eta gaztelania eta %4,2k (N=2) gaztelania soilik.

3.2.2.-Gurasoen lehenengo hizkuntza

Langile guztietatik %83,3ren kasuan (N=40) aitaren lehenengo hizkuntza euskara izan da, %8,3rena (N=4) euskara eta gaztelania eta beste %8,3rena (N=4) gaztelania bakarrik.

Amaren kasuan %85,4ren amak (N=41) euskara izan du lehenengo hizkuntza, %6,3k (N=3) gaztelania eta %8,3k (N=4) biak.

3.2.3.-Ikasketen hizkuntza

Oinarritzko ikasketei dagokienez, erantzuna eman duten 47 langileen artean %40,4k (N=19) gaztelaniaz burutu ditu aipatutako ikasketok eta %42,6k (N=20) euskaraz, gaztelania irakasgai hutsa izan dutela.

LH-BBB-UBI ikasketei dagokienez, lagin osoaren %91,7k gaituta ditu maila horretako ikasketak (N=44) eta horietatik %38,6k gaztelaniaz burutu ditu ikasketok eta %29,5ek euskaraz, gaztelania irakasgai hutsa izan zela.

Erdi- eta goi-mailako ikasketen kasuan, %58,3k (N=28) erantzun dio galdera honi. Horietatik %50 gaztelaniaz burutu ditu ikasketok (N=14) eta %25ek euskaraz (N=7)

3.2.4.-Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta gaitutako hizkuntza-eskakizun altuena

%91,7k (N=44) erantzun dio galdera honi eta horietatik %31,8ren kasuan (N=14) 2. hizkuntza-eskakizuna du betetzen ari den lanpostuak ezarrita, %54,5ek (N=24) 3. hizkuntza-eskakizuna eta %13,6k (N=6) 4. hizkuntza-eskakizuna.

Erantzun duten horien guztien artean langile bakarra da euskara ikasten ari dena eta dagokion hizkuntza-eskakizuna bete ez duena, gainontzeko guztiek dagokiena edo dagokien hori baino beste hizkuntza-eskakizun altuagoa gaitu dute.

Langileak gaitutako hizkuntza-eskakizunari dagokionez, berriz, %87,5 (N=42) izan da galdera horri erantzun diona eta hauetxek ditugu datuak: %19k (N=8) gaitua du 2. hizkuntza-eskakizuna, %64,3k (N=27) hirugarrena eta %16,7k (N=7) laugarrena.

3.2.5.-Euskararen ezagutza-maila

Galdesorta bete duten langile guztiek aitortu dute euskaraz ongi (N=44) edo nahikoa ongi (N=4) ulertzen dutela.

Denek hitz egiten dute euskaraz ongi (N=38) edo nahikoa ongi (N=10).

Irakurtzeari dagokionez, langile guztietatik 37k (%77,1) euskaraz ongi irakurtzen dutela aitortu dute, 10ek nahikoa ongi (%20,8) eta 1ek zertxobait (%2,1).

Idazteko gaitasunari dagokionez, berriz, 34 dira (%70,8) ongi idazten dutela aitortzen dutenak, 11 nahikoa ongi (%22,9) eta 3 zertxobait (%6,3).

3.2.6.-Euskaraz hitz egiteko erraztasuna

Lanari dagokionez, %20,8 (N=10) euskaraz hobeto moldatzen da gaztelaniaz baino, %35,4 (N=17) gaztelaniaz errazago eta %43,8 (N=21) bietara berdin.

Gai pertsonalez hitz egiten dutenean, ordea, erantzun duten 47 langileetatik (%97,9), 10 lagun dira (%21,3) gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino, %31,9 (N=15) euskaraz errazago eta %46,8 (N=22) dira euskaraz eta gaztelaniaz berdin moldatzen direla aitortzen dutenak.

Aldagai soziolinguistikoen laburpen gisara esan dezakegu langile guztien artean %97,8k, hau da, 46 lagunek euskara edo euskara eta gaztelania izan dutela lehenengo hizkuntza. Denek diote euskaraz ongi edo nahikoa ongi ulertzen eta hitz egiten dutela eta gehiengoa dira (%64,6) lanari dagokionez euskaraz hobeto edo bietara berdin moldatzen diren langileak. Gai pertsonalei dagokienez, ordea, erantzun dutenen artean kopuru hori areagotu egiten da (%78,7).

3.3.-Aldagai psikosozialak

3.3.1.-Sare soziala

3.3.1.1-Subjektuaren sare sozialeko kideen euskararen ezagutza-maila

Sare sozialaren barruan aita, ama, senar-emazte edo bizilaguna, seme-alabak, lagunak, lankideak, burua(k) edo menpekoen euskararen ezagutza-mailari buruz galdetu zaie inkestatuei.

Aitaren ezagutza-mailari dagokionez, erantzun duten 41 lagunetatik (%85,4) 4k (%9,8) galdera hori ez dagokiela erantzun dute, baina erantzun ez duten beste 7 lagunen kasuan ere berez galdera ez dagokiela uler daiteke, hau da, aita hilda dagoelako. Dena den, erantzuna eman duten 41 lagun horietatik 33k aitortu dute euren aitaren euskara-maila ona edo nahikoa ona dela (%80,5).

Amari dagokionez, 46 izan dira jasotako erantzunak. Horietatik 2 dira 'ez dagokio' erantzuna jaso dutenak eta beste 2 lagun izan dira kasu honetan erantzunik eman ez dutenak. Kasu honetan ere pentsa daiteke erantzun ez dutenak ama hilda dutelako izatea. Dena den, erantzundako 46 lagun horien artean 39ren amak (%84,8) euskara-maila ona edo nahikoa ona du.

Senar-emazte edo bizilagunaren kasuan, 41 izan dira erantzun duten lagunak. Oraingo honetan 4 dira 'ez dagokio' erantzuna eman dutenak eta 7 erantzun ez dutenak, baina agian 'ez dagokio'ren zakuan sartuko liratekeenak senar-emazterik edo bizilagunik ez dutelako. Dena den, erantzun duten 41 horien artean 30 dira senar-emazte edo bizilaguna euskara-maila onekoa edo nahikoa onekoa dutenak (%73,1).

Seme-alaben euskara-mailari dagokionez, 34 lagun izan dira erantzuna eman dutenak eta horietatik 5ek 'ez dagokio' erantzuna aukeratu dute. 14 izan dira, aldiz, galdera honi erantzun ez diotenak (seme-alabarik ez dutelako seguruenik eta 'ez dagokio' multzoan sartu beharko liratekeenak). Dena den, erantzun dutenen artean 29k, hau da, seme-alabak dituzten guztiek (%100) euren seme-alabek euskara-maila ona edo nahikoa ona dutela esan dute.

Lagunen kasuan ere erantzun dutenen 46 inkestatuen %89,2k euskara-maila ona edo nahikoa ona duten lagunak dituzte.

Lankideen kasuan are altuagoa da euskararen ezagutza-maila erantzun dutenen artean (N=46) denen lankideek dute euskara-maila ona edo nahikoa ona (%100).

Buruen kasuan, ordea, erantzun dutenen artean (N=44) %86,4k du euskara-maila ona edo nahikoa ona (N=38) eta %9,1ek tartekoa (N=4), aldiz erantzuna eman duten 44 lagun horien artean 2k 'ez dagokio' erantzuna eman dute eta falta diren beste 4k ez dute erantzun.

Menpekoei dagokienez, 21 lagun izan dira galdera honi erantzun diotenak eta horietatik 8 'ez dagokio' erantzun dutenak. Erantzunik eman ez dutenak, ordea, 27 lagun izan dira. Suposatzekoa da hauek ere 'ez dagokio' erantzuna eman beharko luketela. Dena den, erantzun dutenen artean %57,2 (N=12) euren menpekoen euskara-maila ona edo nahikoa ona dela erantzun dute eta %4,8k (N=1) tartekoa.

Ikus dezakegunez, udaleko sare sozialaren euskararen ezagutza-maila oso altua da oro har.

3.3.1.2.-Subjektuaren euskararen erabilera sare sozialean

Hau neurtzeko ondorengo itemak erabili ziren: aita, ama, senar-emazte edo bizilaguna, seme-alabak, lagunak, lankideak, buruak eta menpekoak.

Aitarekiko erabilerari dagokionez, erantzun dutenen 40 lagunetatik 25ek (%62,5) aitarekin beti euskaraz egiten dutela aitortzen dute, %10ek (N=4) 'ez dagokio' erantzun dute eta 8 lagunek ez dute erantzunik eman.

Amarekiko erabileraren kasuan, 46 lagun izan dira erantzun dutenak. Horietatik 25ek (%54,3) amarekin beti euskaraz egiten dutela aitortzen dute, 7k (%15,2) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, 4k (8,7) bietara berdintsu, 3k (%6,5) gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, 6k (%12,5) beti gaztelaniaz eta falta denak 'ez dagokio'la erantzun du. Beste 2 lagunek ez dute erantzun.

Senar-emazte edo bizilagunarekiko erabileraren kasuan, 42 izan dira erantzun duten lagunak, horietatik 15ek (%35,7) beti euskaraz egiten dutela aitortzen dute, 4k (%9,5) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, 5k (%11,9) bietara berdintsu, 10ek (%23,8) gaztelaniaz gehiago euskaraz baino, 4k (%9,5) beti gaztelaniaz eta beste 4k 'ez dagokie'la erantzun dute. 6 izan dira galdera honi erantzun ez diotenak.

Seme-alaben kasuan 34 izan dira (%70,8) erantzun dutenak. Horietatik beti euskaraz egiten dutenak 26 lagun dira (%76,5), euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutenak 3 dira (%8,8) eta 5 dira (%14,7) 'ez dagokio' erantzun dutenak. Baina beste 14 izan dira, guztien artean %29,2 erantzunik eman ez dutenak.

Lagunekiko erabilerari dagokionez, kontuan hartuta bakar batek ez diola galdera honi erantzun (%2,1) gehiengoa da euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutenen batezbestekoa, %40,4 (N=19).

Lankideekiko euskararen erabilerari so egiten badiogu, berriz, erantzun dutenen artean (N=46) erdiak dio lankideekin beti euskaraz egiten duela eta %37k (N=17) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino.

Buruekiko erabilerari dagokionez, erantzuna eman duten 44 lagunen artean erdiak beti euskaraz egiten duela aitortzen du eta ia heren batek (%29,5) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino. Bi izan dira 44 lagun horien artean (%4,5) 'ez dagokio' erantzuna eman dutenak eta 4 (guztien artean %8,3) galderari erantzun ez diotenak.

Menpekoen kasuan, 21 izan dira erantzuna eman duten lagunak. Horietatik %19 (N=4) beti euskaraz aritzen dira menpekoekin, %23,8 (N=5) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino, %14,3 (N=3) bietara berdintsu eta bakar bat (%4,8) gaztelaniaz gehiago euskaraz baino. 8 lagun izan dira (erantzun dutenen artean %38,1) 'ez dagokio' erantzuna aukeratu dutenak eta 27 lagun (guztien artean %56,3) erantzun ez dutenak.

Ezagutza eta erabileraren arteko emaitzak alderatzen baditugu ikus dezakegu, logikoa denez, erabilera ezaguera baino zertxobait urriagoa dela eta 'beti euskaraz'ko erabilerarik altuena seme-alabekikoa dela eta urriarena menpekoekikoa.

3.3.1.3.-Subjektuaren euskararen erabilera egoera soziolinguistiko ezberdinetan

Hau neurtzeko ondorengo itemak erabili ziren: dendetan, udaletxean, Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan, postetxean eta INEMen, liburuak irakurtzeko, aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko, irratia entzuteko, telebista ikusteko, aisialdiko beste ekintzetan, pentsatzeko, haserretzeko eta ametsetan erabiltzen dugun hizkuntzari buruz galdetu zitzaion.

Lehenengoari, hau da, dendetan erabiltzen duten hizkuntzari buruzko galderari inkestatu guztiek erantzun zioten eta 22 izan ziren (%45,8) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutela erantzun zutenak, 18 (%37,5) beti euskaraz egiten dutenak, 6 (%12,5) bietara berdintsu eta 2 (%4,2) gaztelaniaz gehiago egiten dutenak euskaraz baino.

Udaletxeko erabilerari dagokionez, gehiengoa da (%61,7), hau da, 29 lagun beti euskaraz aritzen dena, 15 lagun (%31,9) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago aritzen direnak, 2 lagun (%4,3) bietara berdintsu aritzen direnak eta bakarra (%2,1) gaztelaniaz gehiago aritzen dena. Lagun batek ez zion galdera honi erantzun.

Foru Aldundiari dagokionez, erantzundakoen erdiak N=18, beti euskaraz hitz egiten duela esan zuen, 11 lagunek (%30,6) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino, 4 lagunek (%11,1) bietara berdintsu eta beste 3k (%8,.) ez dagokiela erantzun zuten. 12 izan dira (guztien artean laurdena) erantzunik eman ez dutenak.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 36 izan dira erantzun duten lagunak (%75), horietatik erdiak beti euskaraz aritzen dira eta laurdenak euskaraz gehiago gaztelaniaz baino, %11,1 (N=4) bietara berdintsu, %2,8 (N=1) beti gaztelaniaz eta %11,1ek (N=4) 'ez dagokio'la erantzun du. 12 lagun izan dira galdera honi erantzun ez diotenak.

Postetxeko eta INEMeko erabilerari dagokionez, erantzun dutenen 39 lagun artean %20,5 (N=8) dira beti euskaraz aritzen direnak, %25,5 (N=10) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino, %28,2 (N=11) bietara berdintsu, %17,9 (N=7) gaztelaniaz gehiago euskaraz baino, %5,1 (N=2) beti gaztelaniaz eta %2,6k (N=1) 'ez dagokio'la erantzun du. 9 lagun izan dira erantzun ez dutenak.

Liburuak irakurtzeko garaian, nagusitu egiten dira gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dutenak (%45,8), hots, 22 lagun. Ondoren datoz bietara berdintsu irakurtzen dutenak, 15 lagun (%31,3). Atzetik, beti gaztelaniaz irakurtzen dutenak, 5 lagun (%10,4) eta hiruna lagun dira beti euskaraz eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen dutenak.

Aldizkariak edota egunkariak irakurtzeko garaian ere gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dutenak nagusitzen dira (%54,3), hots, 25 lagun. Ondoren datoz, oraingoan ere, bietara berdintsu irakurtzen dutenak (%23,9), hau da, 11 lagun. Atzetik, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen dutenak (%10,9), 5 lagun, alegia. Beti gaztelaniaz irakurtzen dutenak 4 lagun dira (%8,7) eta lagun bakarra da (%2,2) beti euskaraz irakurtzen duena. 2 lagun izan dira galderari erantzun ez diotenak (guztien artean %4,2).

Irratia entzuteko garaian, galdera honi erantzun dioten 45 lagunek (%93,8) ondorengo aukera egiten dute: %37,8k (N=17) bietara berdintsu entzuten du irratia, %24,4 (N=11) beti euskaraz eta beste horrenbeste euskaraz gehiago gaztelaniaz baino. Gutxiago dira (%8,9), hau da, 4 lagun irratia gaztelaniaz euskaraz baino gehiago entzuten dutenak, bakar batek beti gaztelaniaz entzuten du eta beste batek 'ez dagokio'la erantzun du. 3 lagun izan dira galdera honi erantzun ez diotenak.

Telebista ikusteko garaian ere nagusi dira (%47,9), hau da, 23 lagun, telebista bietara berdintsu ikusten dutenak. Ondoren datoz euskaraz gaztelaniaz baino gehiago ikusten dutenak (%29,2), hots, 14 lagun. Hauen atzetik, 10 lagun dira (%20,8) gaztelaniaz gehiago ikusten dutenak eta lagun bakarra da (%2,1) telebista beti euskaraz ikusten duena.

Aisialdiko beste ekintzei dagokienez, 43 lagun izan dira erantzun dutenak (%89,6). Horietatik %39,5 (N=17) bietara berdintsu aritzen dira aisialdiko beste ekintzetan, %34,9 (N=15) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino, %14 (N=6) beti euskaraz eta %11,6 (N=5) gaztelaniaz gehiago euskaraz baino. 5 lagun izan dira galderari erantzun ez diotenak.

Pentsatzeko garaian nagusi dira %31,3 (N=15) beti euskaraz pentsatzen dutenak, ondoren datoz euskaraz gaztelaniaz baino gehiago pentsatzen dutenak (%22,9), hau da, 11 lagun eta beste horrenbeste dira bietara berdintsu egiten duenak. Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago pentsatzen duenak 8 dira (%16,7) eta %6,3 (N=3) beti gaztelaniaz pentsatzen dutenak.

Haserretzeko garaian ere nagusi dira beti euskaraz haserretzen direnak: 15 lagun (%31,9), euskaraz gaztelaniaz baino gehiago haserretzen direnak, ordea, %12,8 dira (N=6), 14 lagun dira bietara berdintsu egiten dutenak (%29,8), 7 lagun (%14,9) gaztelaniaz euskaraz baino gehiago haserretzen direnak eta 5 lagun (%10,6) beti gaztelaniaz. Inkestatu batek ez dio galderari erantzun.

Ametsei dagokienean, 15 lagun dira oraingoan ere (%38,5) beti euskaraz amets egiten dutenak, 6 lagun (%15,4) euskaraz gehiago gaztelaniaz baino egiten dutenak, 7 lagun (%17,9) bietara berdintsu, 5 lagun (%12,8) gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta 4 lagun (%10,3) beti gaztelaniaz amets egiten dutenak. 2 lagunek 'ez dagokie'la erantzun dute (%5,1) eta guztien artean 9 lagun izan dira (%18,8) galderari erantzun ez diotenak.

Erabilera soziolinguistiko ezberdinetan udaleko langileek egiten duten euskararen erabilerari dagokionez zera esan dezakegu laburpen gisa: euskararen erabilera instituzionalari dagokionez, euskararen erabilerarik altuena udaletxean ematen dela. Erantzun dutenen artean %97,9k aitortu du udaletxean beti euskaraz, euskaraz gehiago edo bietara berdintsu egiten duela. Ondoren datoz Foru Aldundian egiten den euskararen erabilera (%91,7), Eusko Jaurlaritzakoa (%86,1) eta azkenik postetxean edo INEMen egiten dena (%74,4).

Euskararen norbanakoaren kanpo-erabilerari dagokionez, hauek ditugu datuak: emaitzarik altuena irratia entzuteko garaian ematen da, erantzun dutenen artean %86,7 aitortu du irratia beti euskaraz, euskaraz gehiago edo bietara berdintsu entzuten duela. Telebistaren kasuan erabilera hori %79,2koa da. Aisialdiko beste ekintzetan erabilera hori areagotu egiten da (%88,4). Aldiz, liburuak irakurtzeko garaian (%43,8) eta aldizkariak eta egunkariak irakurtzerakoan (%37) kopuru horiek dezente jeisten dira.

Norbanakoaren barne-erabilerari dagokionez, ondorengoak ditugu emaitzak: erabilerarik altuena pentsatzeko garaian ematen da (%77,1), jarraian dator haserretzea (%74,5) eta atzetik, amets egitearena (%71,8).

3.3.2.-Jarrerak

3.3.2.1.-Euskararekiko jarrerak

Euskararekiko jarrera neurtzeko honako itemak erabili dira (kasu honetan item bakoitza adjektibo antonimo pare batek osatzen du): alferrikakoa/baliagarria, urruna/gertukoa, gehiengoarena/gutxiengoarena, garrantzitsua/balio gutxikoa, beharrezkoa/ez beharrezkoa, modernoa/zaharkitua, erraza/zaila, integratzailea/diskriminatzailea, popularra/elitista, zientifikoa/lagunartekoa, hirikoa/baserri-girokoa, miresgarria/mesprezagarria eta norberarena/besterena.

Item bakoitza bitan banatu da: adjektibo ezkorra alde batetik eta baikorra, bestetik. Eta adjektibo bakoitzari hiruna graduatzaile gehitu zaizkio: oso, nahikoa eta zerbait.

Euskararekiko jarrerari dagozkion itemak ondorengoak dira: alferrikakoa/baliagarria, urruna/gertukoa, garrantzitsua/balio gutxikoa, beharrezkoa/ez beharrezkoa, integratzailea/diskriminatzailea, elitista/popularra, miresgarria/mesprezagarria eta besterena/norberarena.

Euskara alferrikakoa ala baliagarria den galdetu denean hauetxez izan dira erantzunak. 45 izan dira galdera hori erantzun diotenak (%93,8) eta horietatik 40k (%88,9) oso baliagarria deritzo euskarari, 4k (%8,9) nahikoa baliagarria eta batek (%2,1) alferrikakoa.

Urruna/gertukoa bikoteari dagokionez, erantzun duten 44 lagunetik (%91,7) 37k (%84,1) oso gertuko bezala sumatzen dute euskara, 3k (%6,8) nahikoa gertukoa bezala, 1ek (%2,3) zerbait gertukoa bezala, beste batek (%2,3) nahikoa urruna bezala eta 2k (%4,5) oso urruna bezala.

Garrantzitsua ala balio gutxikoa ote den galdetu zaienenan, 45 lagunek erantzun dute (%93,8). Horietatik 38rentzat (%84,4) euskara oso garrantzitsua da, 5entzat (%11,1) nahikoa garrantzitsua eta 2rentzat oso balio gutxikoa (%4,4).

Beharrezkoa ala ez galderari honela erantzun diote 44 lagunek (%91,7): 34k (%77,3) oso beharrezkoa deritzote euskarari, 6k (%13,6) nahikoa beharrezkoa, 1ek (%2,3) zerbait beharrezkoa, 2k (%4,5) nahikoa ez-beharrezkoa eta batek (%2,3) oso ez-beharrezkoa.

Euskara integratzailea ala diskriminatzailea galdetu zaienean, 39 lagunek erantzun dute (%81,3). 11k (%28,2) oso integratzailea deritzote, 20k (%51,3) nahikoa integratzailea, 7k (17,9) zerbait integratzailea eta bakar batek (%2,6) nahikoa diskriminatzailea.

Elitista ala popularra den galdetu zaienean, 40 lagunek erantzun dute (%83,3). 20k oso popularra deritzote (%50), 12k (%30) nahikoa popularra eta 2k zerbait popularra (%5). 4 lagunek zerbait elitista deritzote (%10), lagun batek (%2,5) nahikoa elitista eta beste batek oso elitista.

Miresgarria/mesprezagarria dikotomiari horrela erantzun diote 37 lagunek (%77,1). Gehiengoak, 24 lagunek (%64,9) miresgarria deritzote, 9k (%24,3) nahikoa miresgarria eta 3k (%8,1) zerbait. Lagun batek, aldiz, (%2,7) oso mesprezagarria deritzo.

Besterena ala norberarena bezala sentitzen duten galdetu zaienean, 37 lagunek erantzun dute (%77,1). Horietatik 26 lagunek (%70,3) oso norberarena bezala sentitzen dute, 6k (%16,2) nahikoa norberarena bezala eta 2k (%5,4) zerbait norberarena. Beste 2 lagunek (%5,4) zerbait besterena bezala ikusten dute eta lagun batek (%2,7) oso besterena bezala.

Euskararen modernotasuna neurtzen duten itemak, ordea, hauetxez ditugu: baserri-girokoa/hirikoa, modernoa/zaharkitua, gehiengoarena/gutxiengoarena eta diskriminatzailea/integratzailea.

Baserri-giroko ala hiriko bezala sumatzen duten galdetu zaienean hauetxez izan dira erantzun duten 34 lagunen (%70,8) erantzunak: 5ek (%14,7) oso baserrikoa deritzote, 6k (%17,6) nahikoa baserri-girokoa, eta 11k (%32,4) zerbait. 3 lagun izan dira (%8,8) oso hiri-girokoa deritzotenak, 4 (%14,7) nahikoa hirikoa eta 5 (%11,8) zerbait.

Moderno den ala zaharkitua dagoen galdetu zaienean, 38 lagunek erantzun dute (%79,2). Horietatik 4k (%10,5) oso moderno deritzote, 17k (%44,7) nahikoa moderno, 8k (%21,1) zerbait moderno, 4k (%10,5) zerbait zaharkitua, 2k (%5,3) nahikoa zaharkitua eta 3k (%7,9) oso zaharkitua.

Gehiengoarena/gutxiengoarena den galderari 40 lagunek erantzun diote (%83,3). Horietatik 16 lagun izan dira (%40) nahikoa gehiengoarena bezala definitu dutenak, 3 (%7,5) oso gehiengoarena bezala, 6 (%15) zerbait gehiengoarena, 1 (%2,5) oso gutxiengoarena, 9 (%22,5) nahikoa gutxiengoarena eta 5 (%12,5) zerbait gutxiengoarena.

Euskararen zientifikotasuna neurtzen duten itemak ondorengoak dira: erraza/zaila, zientifikoa/lagunartekoa.

Erraza/zaila dikotomiari dagokionean, 39 izan dira erantzunak (%81,3). Horietatik 5 lagunek (%12,8) oso erraza deritzote euskarari, 11k (%28,2) nahikoa erraza, 2k (%5,1) zerbait erraza, 7k (%17,9) zerbait zaila, 10ek (%25,6) nahikoa zaila eta 4k (%10,3) oso zaila.

Zientifikoa/lagunartekoa dikotomiari 37 lagunek erantzun diote (%77,1). Horietatik 15ek (%40,5) oso lagunartekoa deritzote, 9k (%24,3) nahikoa lagunartekoa eta 4k (%10,8) zerbait lagunartekoa. Beste horrenbestek, 4 lagunek, zerbait zientifikoa deritzote, 3k (%8,1) nahikoa zientifikoa eta 2k (%5,4) oso zientifikoa.

Euskararekiko jarreraren laburpen gisa esan dezakegu, jarraian ematen diren datuak direla erantzun dutenen artean gehiengoaren iritzia: %88,9rentzat (N=40) euskara oso baliagarria da, %84,1rentzat (N=37) oso gertukoa, %84,4rentzat (N=38) oso garrantzitsua da, %77,3rentzat (N=34) oso beharrezkoa. %51,3k dio (N=20) euskara nahikoa integratzailea dela, %50ek (N=20) oso popularra deritzote, %64,9k (N=24) miresgarria eta %70,3k (N=26) oso norberarena. Euskara baserri- ala hiri-giroko bezala ikusten duten galdetu zaienean, gehiengoak (%32,4), hau da, 11 lagunek zerbait baserri-giroko bezala dakusate. %44,7k (N=17) nahikoa moderno ikusten dute euskara, %40k (N=16) nahikoa gehiengoarena bezala, %28,2k (N=11) nahikoa erraza eta %40,4k (N=15) oso lagunartekoa deritzote.

3.3.3.-Bizitasun etnolinguistikoa

3.3.3.1.-Bizitasun etnolinguistikoaren hautemate subjektiboa.

Euskara eta euskaldunekiko eta gaztelania eta erdaldunekiko bizitasun etnolinguistikoaren hautemate subjektiboa

Euskara eta euskaldunen bizitasun etnolinguistikoa neurtzeko ondorengo itemak erabili ziren: Autonomia Erkidegoko berezko erakundeek euskararen erabilera, euskaldunen kontrol ekonomikoa Autonomia Erkidegoan, euskararen presentzia komunikabideetan EAEn, euskaldunen botere politikoa EAEn, euskaldunen presentzia kultura-munduan, euskaldunak ondo kontsideratuak EAEn eta herriko euskaldunen batezbestekoa. Item berdinak erabili ziren gaztelania eta erdaldunekiko bizitasun etnolinguistikoaren hautemate subjektiboa neurtzeko.

Horiek horrela euskararen euskarri eta kontrol instituzionala-estatusa deiturikoan honako itemok sartuko lirarteke: euskaldunen botere politikoa EAEn, euskaldunen presentzia kultura-munduan, euskararen presentzia komunikabideetan EAEn, euskaldunen kontrol ekonomikoa EAEn, euskaldunak ondo kontsideratuak EAEn eta Autonomia Erkidegoko berezko erakundeek euskararen erabilera. Item berdinak erabili ziren gaztelaniaren kasuan.

Lehenengo itemari dagokionez, hau da, Autonomia Erkidegoko berezko erakundeek (udaletxe, foru-aldundi, Eusko Jaurlaritza...) euskararen erabilera, ondorengoak ditugu emaitzak. Erantzun dutenen 43 lagunen artean (%89,6), 18 lagunek diote (%41,9) horrelako erakundeetan euskara asko erabiltzen dela, 15ek (%34,9) nahikoa erabiltzen dela, 8k (%18,6) zerbait eta 2k (%4,7) zerbait. Erakunde horietan bertan egiten den gaztelaniaren erabilerari dagokionez, berriz, hauek ditugu emaitzak, erantzun duten 45 lagunena (%93,8): 22 lagunen iritziz (%48,9) gaztelania asko erabiltzen da horrelako erakundeetan, 16ren iritziz (%35,6) nahikoa, 5en (%11,1) iritziz zerbait eta 2 lagunen kasuan (%4,4) gutxi.

Ekonomiaren eta lan-munduaren kontrolari dagokionez, 37 izan dira erantzun duten lagunak (%77,1). Euskaldunen kontrolari dagokionez, 6 lagunek diote (%16,2) euskaldunen kontrola handia dela Autonomia Erkidegoko ekonomia eta lan-munduan. 20ren kasuan (%54,1) nahiko kontrola dute euskaldunek, 9 lagunek (%24,3) kontrol hori tartekoa dela diote eta 2k (%5,4) txikia dela. Erdaldunen kontrolari dagokionez, 13 lagunen iritziz (%35,1) erdaldunen kontrola handia da, 18ren iritziz (%48,6) nahikoa eta 6ren kasuan (%16,2) tartekoa.

Euskarak eta gaztelaniak komunikabideetan duten presentzia izan da neurtutako hurrengo itema. Euskararen presentziari dagokionez, denek erantzun diote galdera honi. 7 lagunen iritziz (%14,6) euskara oso ondo errepresentatuta dago komunikabideetan, 15 lagunen iritziz (31,3) nahikoa ondo, 16 lagunentzat (%33,3) erdizka, 9ren iritziz (%18,8) gutxi eta baten kasuan (%2,1) batere ez. Gaztelaniazko galderari, berriz, 47 lagunek erantzun diote (%97,9). 37 lagunek (%78,7) gaztelania oso ondo errepresentatuta dagoela diote, 9k (%19,1) nahikoa ondo eta 1ek (%2,1) erdizka.

Kontrol politikoari buruzko galderari dagokionez, euskaldunen kontrolari buruzko galderari 43 lagunek erantzun diote (%89,6). Horietatik 12 lagunen iritziz (%27,9) euskaldunen kontrol hori handia da, 18 lagunen iritziz (%41,9) nahikoa, 9ren kasuan (%20,9) tartekoa, 3ren iritziz (%7) txikia eta baten iritziz (%2,3) oso txikia. Erdaldunen kontrolari buruzko galderari, ordea, 42 lagunek erantzun diote. Horietatik 20k (%47,6) erdaldunen kontrola politikan handia dela diote, 15ek (%35,7) nahikoa eta 7k (%17,6) tartekoa.

Autonomia Erkidegoko bizitza kulturalen euskaldunek eta erdaldunek duten errepresentagarritasuna. 43 lagunek (%89,6) erantzun diote galderari. Euskaldunen errepresentagarritasunari dagokionez, 7k (%16,3) diote euskaldunak oso ondo errepresentatuta daudela, 20k (%46,5) nahikoa ondo, 14k (%32,6) erdizka, 1ek (%2,1) gutxi eta beste batek batere ez. Erdaldunen errepresentagarritasunari dagokionez, 9k diote (%20,9) erdaldunak oso ondo errepresentatuta daudela bizitza kulturalen, 29k (%67,4) nahikoa ondo, 3k (%7) erdizka, 1ek (%2,3) gutxi eta beste batek batere ez.

Euskaldunak eta erdaldunak Autonomia Erkidegoan nola dauden kontsideratuta. 42 lagunek erantzun dute galdera (%87,5). Euskaldunen kontsiderazioari dagokionez, 20 lagunen iritziz (%47,6) euskaldunak ondo kontsideratuta daude Autonomia Erkidegoan, 16ren iritziz (%38,1) nahikoa ondo, 5en iritziz (%11,9) erdizka eta baten kasuan (%2,4) gutxi. Erdaldunei dagokienez, 10 lagunek diote (%23,8) erdaldunak oso ondo kontsideratuta daudela, 23k (%54,8) nahikoa ondo, 8k (%19) erdizka eta batek (%2,4) gutxi.

Euskararen eta gaztelaniaren demografia deituko ditugunak honako itemek osatuko dituzte: herriko euskaldunen eta erdaldunen batezbestekoa eta Autonomia Erkidegoko berezko erakundeen euskararen eta gaztelaniaren erabilera.

Herriko euskaldunen batezbestekoaren pertzepzioari buruz galdetu zaienean 47 izan dira (%97,9) euskaldunen galderari erantzun diotenak eta 42 (%87,5) erdaldunenari. Euskaldunak herrian gehiengo ala gutxiengo diren galdetu zaienean, 23 lagunek diote (%48,9) euskaldunak gehiengo handia direla herrian, 21ek (44,7) gehiengoa, 2k (%4,3) erdia eta batek (%2,1) gutxiengoa. Erdaldunen batezbestekoari dagokionez, 3k diote (%7,1) erdaldunak gehiengo handia direla herrian, 4k (%9,5) gehiengoa, 11k (%26,2) biztanleen erdia direla, 20k (%47,6) gutxiengoa eta 4k (%9,5) gutxiengo handia.

Bizitasun etnolinguistikoaren hautemate subjektiboaren gainean zera esan dezakegu laburpen gisara: Autonomia Erkidegoko berezko erakundeen hizkuntzen erabilerari dagokionez, %41,9k (N=18) uste du euskara asko erabiltzen dela eta %48,9k (N=22) gaztelania asko erabiltzen dela. Ekonomiaren eta lan-munduaren kontrolari dagokionez, %54,1ek (N=20) euskaldunek nahikoa kontrola dutela diote eta %48,6k (N=18) erdaldunek nahikoa.

Komunikabideetan hizkuntzek duten presentziari dagokionez, %33,3k (N=16) euskara erdizka errepresentatuta dagoela dio eta %78,7k (N=37) gaztelania oso ondo errepresentatuta. Kontrol politikoari buruz galdetu denean, %41,9k (N=18) euskaldunek nahikoa kontrola dutela diote eta %47,6k (N=20) erdaldunen kontrola politikan handia dela. Bizitza kulturalari dagokionez, euskaldunak nahikoa ondo errepresentatuta ikusten dituzte %46,5ek (N=20) eta %67,4k erdaldunak nahikoa ondo. Euskaldunak eta erdaldunak Autonomia Erkidegoan nola dauden kontsideratuta galdetu denean, %47,6rentzat (N=20) euskaldunak ondo kontsideratuta daude eta %54,8rentzat (N=23) erdaldunak nahikoa ondo. Herriko euskaldunen batezbestekoaren pertzepzioari dagokionean, %48,9k dio (N=23) euskaldunak gehiago handia direla eta %47,6k (N=20) erdaldunak gutxiengoa.

3.3.3.2.-Bizitasun etnolinguistikoa uste-sistema bezala

Euskara eta euskaldunei buruzko eta gaztelania eta erdaldunei uste exozentrikoak

Aldagai hau neurtzeko ondorengo itemak erabili ziren: euskara eta gaztelania lan-munduan, euskara eta gaztelania zerbitzuetan, euskaldunen eta erdaldunen indarra gaur egun eta euskaldunen eta erdaldunen indarra 10 edo 20 urte barru.

Euskararekiko eta gaztelaniarekiko uste exozentrikoa ondorengo itemek neurtu dute: euskara eta gaztelania zerbitzuetan eta euskara eta gaztelania lan-munduan.

Euskara zerbitzuetan zenbatetan erabiltzen den galdetu dugunean, 44 lagunek erantzun dute (%91,7). Horietatik 16k (%36,4) diote euskara asko erabiltzen dela Autonomia Erkidegoko udal-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetan. 11k (%25) nahikoa erabiltzen dela, 10ek (%22,7) erdizka, 6k (%13,6) gutxi eta batek (%2,3) oso gutxi. Gaztelaniaren erabilerari buruz ere 44 lagunek erantzundute. Horietatik 32k (%72,7) uste dute gaztelania asko erabiltzen dela, 10ek (%22,7) nahikoa eta 2k (%4,5) erdizka.

